

Kirola

2002ra arte Zaldibarko emakumeen futbolaren aitzindari izan ziren jokalariai omendu dituzte > 17



Jazz eta blues doinuez gozatu ahalko da asteburuan Elorrion

Zortzi kontzertuk osatzen dute 28. Arriolako Jazz eta Blues jaialdia. Atzo hasi zen, Pelax&Telmo Trenorren ikuskizunagaz, eta asteburuan Alberto Arteta Quintet, CadiJo R&B Band eta Ghost Number & His Topsy Gypsies taldeek eskainiko dituzte kontzertuak. Emanaldiak Ateneon, Portalekuan eta gaztetxean izango dira, urtero legez. > 8

“Etorkinei eskola eta bizitokia eskaintzeaz aparte, asteburuko planak egiten genituen”



Koldo Katxo | Jeusiten Etxea > 10

Tentsio handia dakarren linea

Red Eléctrica de Españañak goi-tentsioko argindar linea egiteko ardura du. Proiektua laster onartu daiteke, behin betirako. Durangaldean, Zornotza, Iurreta, Garai, Berriz, Mallabia eta Zaldibarretik igarotzea aurreikusten da. Mallabiko baserri bi egitasmoko albo-kaltearen adibide dira. Linea biren artean harrapatuta geratuko lirateke. > 2-3



ALKIMAX
Alquillamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net

 BIRRINGAILUA

 HOSTO-HAIZAGAILUA

 ENBORRAK EZPALETAN ZATITZEKO GAILUA

Zaldibar > 4

Sanjoango-Elexpen kultur etxea egiteko 150.000 euro gorde dituzte

Durango > 5

‘Movember’ ekimena martxan da Durangon, DRTren eskutik

Atxondo > 9

Herri Eskolako galdara-gelako matxurei amaiera jarri gura diete

Durango > 5

Kobika jatetxea Espainiako pintxo lehiaketan saritu dute

Herririk herri



Durangaldeari dagokionez, Mallabiko eta Zornotzako EH Bilduko ordezkariak batu zituen batzarrak.

Argindar linea geratzeko indarren bilgune bihurtu gura du Goi Tentsioari Ez plataformak

Linearen kontrako mugimendua batzen eta koordinatzen saiatuko dira

ERREPORTAJEA J. Derteano
Red Eléctrica de España konpainiak goi-tentsioko argindar linea egiteko ardura du Gueñes (Bizkaia) eta Itxaso (Gipuzkoa) artean. Tartean, Durangaldeko sei herritatik igaroko litzateke: Zornotza, Iurreta, Garai, Mallabia, Berriz eta Zaldibarretik. Proiektua azken fasean dago eta Espainiako Gobernuak edozein momentutan onartu dezake behin betiko. Adituen esanetan, badaude egitasmoa atzera bota ahal izateko argudioak, baina horiek modu bateratuan defendatu eta presioa egiteko gizarte mugimendu aktibo eta antolatua falta da. Goi Tentsioari Ez plataforma txinparta horren eragile eta mugimenduaren bateragune bihurtu daiteke. Bide horretan urratsak emateko prest daude, astelehenean lineak eragindako erakundeak eta norbanakoak deituta zeuden Durangoko batzar irekian azaldu zuten. Lehenengo pausoa

plataforma ofizialki gizartearen aurrean aurkezteko ekitaldia izango dela erabaki zuten. Azaro amaiera aldera izan daiteke.

“Badaude proiektua geratu dezaketen argudioak, batez ere ingurumenaren arlotik”, azaldu zuen batzarrean gaiaren inguruko aholkularitza juridikoa ematera bertaratu zen Dani Maeztu abokatuak. Hainbat zerrendatu zituen: argindar dorreak non kokatuko ziren zehazten ez zuen lehenengo proiektua onartzeaz (2011. urtean) batera, ingurumen inpaktuaren txostena onartu izana eta uhin elektromagnetikoen osasunean izan dezaketen eragina, besteak beste.

Proiektua onartu arte ez dago ezer egiterik. Baina, behin onartutakoan, prozedura arin joango dela abisatu zuen, desjabetzeak eta abar. Gura duenak orduan izango du epaitegiatiko bidea hartzeko aukera ere. “Baina ez dauka zentzurik borroka

judizial luze eta garestian sartzetak, mugimendu sozialik ez badago”, aholkatu zuen Maeztuk. Horregatik, gaur egun batez ere sare sozialen bidez mugitzen den Plataformak pauso berri bat eman eta jendaurreko aurkezpena egitea erabaki du.

Linea, Durangaldean

Goi-tentsioko linea Zornotzan sartu eta Zaldibarren irteten da Durangaldean. 73 kilometroko ibilbidean, 22 kilometro eskualdean egingo ditu. Oiz ingurutik hasi eta Mallabian zein Zaldibarren zehar beste linea elektriko batez nahiko paraleloan joango da.

Udalek linearen kontrako jarrera hartu dute. Martxoan, Zornotzako udalbatzarrean linearen “gutziz aurka dagoela” erakusten zuen udal adierazpena irakurri zuten. Mallabian, Iurretan, Zaldibarren, Garain eta Berrizen ere ildo bereko mozioak onartu dituzte.

“Gueñesen udalak uhin elektromagnetikoei buruzko azterketa egitea lortu dugu”

Alex Salazar estatuko argindar azpiestazio handienetakoa duen herrian bizi da



Alex Salazar Goi Tentsioari Ez plataformako kidea da. Gueñes herriko La Cuadra auzoan bizi da, estatuko argindar azpiestaziorik handienetakoa duen inguruan.

Herriz herriko mugimenduen lana ere garrantzitsua da. Guk, Gueñesen, udalak uhin elektromagnetikoei buruzko azterketa bat ordaindutea lortu dugu.

Noiz eratu zenuten plataforma?

Aurtengo martxoan. Proiektuaren harira, Gobernuak erabilera publikoko deklarazioa atera zuenean hasi ginen. Hainbat herritan hitzaldiak izan ziren, alegazioen epea hasi zen eta orduan hasi ginen zenbait herritako jendeagaz hartu-emanak izaten. Plataforman hainbat herritako jendea dago.

Zer helburu duzue?

Proiektua geldiarazi gura dugu eta, bide horretan, gizarte mugimendua saretu gura dugu. Denbora irabaztea inportantea da. Gobernuak aldatu egiten dira eta, behar bada, sartzen den berriak beste ikuspegi bat izan dezake. Edota, batek daki, behar bada, bestelako energia iturriek gora egin dezakete eta panorama erabat aldatu daiteke. Badaude horrelako adibideak.

Uhin elektromagnetikoen inguruko azterketa?

Bai. Sinadurak batu genituen. Legea oso permisiboa dela uste dut. Estatuan 100 mikrotelako [fluxu magnetikoaren dentsitatea neurtzeko unitatea da] esposizioa onartzen bada, atzerriko herrialde askotan baimentzen den neurria askoz baxuagoa da.

Zure ustez, linea zergatik ez da beharrezkoa?

Argindar linea sareak osatzeko dela diote, baina, nire ustez, beste arrazoi batzuk daude. Frantzia trantsizio energetikoan sartuta dago, eta linea hau hara energia saltzeko erabiliko dute. Ez da hemengo eskari baten ondorioa, baizik eta etekin ekonomikoa lortzeko negozio pribatuei irekitzen zaien atea. Hemen, zentralak euren ahale-raren azpitik funtzionatzen ari dira.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko azaroaren 10a
16. urtea - 697. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea
Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martínez de Arenaza Yarza, Nagore Txintxurreta Isasi eta Alazne Salcedo Artetxe. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Mallabian argindar linea bi bata bestearen paralelo joango dira 400 kilowatioko linea berria egiten badute, eta bien erdian harrapatuta geratuko dira Areitio auzoko Ariño Etxebarri eta Ariño baserriak. Bertako bizi-lagunak kezkatuta daude, batez ere lineak eragindako uhinek osasunean izan ditzaketen ondorioengatik.

Jose Ramon Olano Ariño Etxebarri baserrian jaiotakoa da. 69 urte ditu eta, beragaz batera, beste zazpi lagun bizi dira baserrian. Sasoi batean, gaur egun eginda dagoen linearen ondotik pasatzen zen lanera joateko. Egun euritsua bazen, edo, behelainoa bazegoen, argindar kableak gorri kolorez jartzen zirela dio, eta zarata ere entzuten zuela. “Linea berria orain dagoena baino hiru bat bider handiagoa da. Beraz, imajinatu zer izango den!”, adierazi du. Beste ezeren gaineratik, “osasunean izan dezakeen eraginak” kezkatzen du. “Lehenengo lineak 40 bat urte ditu eta orduan ez genekien ezer askorik, baina orain berri bat etxe ondotik egitea errematea izango da”, gaineratu du Olanok.

Duela urtebete inguru alegazio “mordo bat” jarri zituen euren egoeraren berri emanez, “baina alferrik izan da, erantzunik ere ez dugu jaso”. “Proiektuko arduradunak linea nondik joango zen informatzera etorri zitzaizkigunean, egitasmoa urtebete edo bi atzeratu genezakeela esan ziguten, baina, azkenean, egin egingo zela”, gogoratu

“Osasunean izan dezakeen eraginak arduratzen gaitu”

Mallabiko baserri bi argindar linea biren artean harrapatuta geratuko dira



Jose Ramon Olano eta Rikardo Urien Mallabiko Areitio auzoko baserri banatan bizi dira. Baserriak elkarren ondoan daude.

tu du Olanok. Horren aurrean, “barneratuta” du linea egingo dena. “Hemen gaudenon egoerak ardura diela uste duzu, ala? Ez ba, honek ez du atzerabueltarik”, dio. Urte hauetan beste nonbaitera bizitzera joatea edo antzerako burutazioak izan dituela onartu du. “Buruari buelta

asko ematen dizkiozu azkenean, buelta asko”, esan du.

Rikardo Urienek 34 urte daramatza Ariño baserrian. Emaztea eta biak bizi dira bertan. Linea berriak “osasunean eragin ditzakeen ondorioek” kezkatzen dute. “Guk badugu pinudi bat. Handik joango balitz ez liguke

inportako. Baina etxe ondotik igaroko da”, azaldu du Urienek. Olanori gertatu zaion moduan, alegazioak egin dituzte, eta ez dute erantzunik jaso oraindik.

Iazko urte amaieran, proiektuak eragindako lurren inguruan informatzeko ardura zuen pertsona bategaz batu ziren,

Areitioiko beste auzotar bategaz batera. Urienek adierazi duenez, linea bizilekuetatik 100 metrorra igaro behar da gutxienez, baina pertsona hark neurketa arin bat egin eta linea etxetik 60-80 metro arteko distantziara joango litzatekeela kalkulatu zuen. Ondoren, Mallabiko alkateagaz batu ziren. “Alkateak arduradunekin berba egingo zuela esan zigun, eta gura bagenuen

Jose Ramon Olano:
“Alegazio mordo bat jarri, baina alferrik izan da. Ez dugu erantzunik jaso”

Rikardo Urien: “Garbi esan zigun. Lehenago edo geroago, linea hau egin egingo da”

abisatuko zigula geu ere joateko. Hori udan izan zen, ekain inguruan. Oraindino inork ez digu deitu”, kontatu du.

Mallabian sinadura bilketa bi egin dituzte goi tentsioko linea dela-eta, azkena iazko neguan, baina ez dute uste ezertarako balioko duenik.

Urienek gogoan du beren lurren gaineko informazioa eman zien teknikariak esandakoa. “Garbi esan zigun. Lehenago edo geroago, linea hau egin egingo da”.

GUEÑES-ITXASO GOI TENTSIO LINEA DURANGALDEAN



ZORNOTZA
• 6.940 metro
• 133 partzela.

IURRETA
• 2.332 metro.
• 32 partzela.

GARAI
• 2.571 metro.
• 34 partzela.

BERRIZ
• 4.784 metro.
• 156 partzela.

MALLABIA
• 1.534 metro.
• 28 partzela.

ZALDIBAR
• 3.878 metro.
• 117 partzela.



Sanjoangoa-Elexpe eraikinean kultur etxea egiteak Alde Zaharra berreskuratzeko balioko du.

150.000 euro gorde ditu udalak kultur etxea egokitzeko

Udalarentzako lehentasunezkoa da Kultur Etxearen hutsunea betetzea

ZALDIBAR A. Maldonado Urteetako hutsunea bete eta Zaldibarren kultur etxea egoteko pausoak ematen ari da udala. Berriki, 150.000 euroko inbertsioa onartu du Sanjoangoa-Elexpe eraikina eraberritu eta kultur etxe bihurtzeko. EH Bilduren proposamenak EAJren babesa du. PSEk, aldiz, aurka bozkatu zuen.

Kultur etxearen gabezia “historikoa” bilakatu da Zaldibarren. Izan ere, urteak di-

ra behar honi buruz hitz eginen hasi zela herrian. Arantza Baigorri alkatearen arabera, lehentasunezko gaia bilakatu zen udal taldearentzat. “Herrian ez dago kultura kontsumitzeko eskaintzarik, ez dago azpiegiturarik, eta hori oso triste da”, adierazi du. Momentu honetan, zaldibartarrek inguruko herritara joatea beste alternatibarik ez dutela ere salatu du Baigorrik. Udalak 150.000 euroko lagun-

EH Bilduren proposamenak EAJren babesa jaso zuen; PSEk aurka bozkatu zuen

Proiektua aurkezteko deialdia 2017a amaitu aurretik publiko egitea da udalaren asmoa

tza bideratzea onartu du. Hala ere, oraindik ez da zehaztu noiz aurkeztu ahalko diren eraberritze proiektuak. “Deialdia 2017an publikatu ahal izatea da gure asmoa, eta horretarako gabilta lanean”, azaldu du Baigorrik.

Desadostasuna nagusi

Kultur etxearen kokapena bera eztabaidagai izan da, baita azkeneko urteetan ere. Izan ere, zenbait proposamen egon dira azken hau onartu aurretik. “Bere garaian, EAJk Sanjoangoa-Elexpe bota, eta eraikin modernoago bat egitea proposatu zuen. Herritarrek gelditu egin zuten proiektu hori, hainbat sinadura bilduta”. Kultur etxea beste toki batean kokatzeko gainontzeko proposamenak ere baztertu egin dira, beti.

Zorraren zama

Krisi ekonomikoak Zaldibarraren abiaraztekoak ziren hainbat ekimen baldintzatu ditu azken urteetan, tartean, kultur etxearen obra ere. Udalak lehendik duen zorra arintzea lortu du azken urteetako kudeaketagaz, eta, orain, horrelako inbertsio bati ekiteko momentu ona dela iritzi dio. “Beharrezkoa den proiektua da hau; urteetan ongi eraman ditugu kontuak, eta horrek posible egingen du hau orain gauzatzea”, azaldu du Baigorrik.

Sanjoangoa-Elexpe etxea Zaldibarko eraikin zaharretakoa da, eta berau berritzea Alde Zaharra berreskuratzeko modu bat dela ere aldarrikatu du alkateak.

Goiuriko Ama elkarteak kultur astea antolatu du

IURRETA Aitziber Basauri Goiuriko Ama Nagusien elkarteak XXVI. Kultur Astea antolatuko du azaroaren 28tik abenduaren 2ra artean. *Somos lo que dicen* berbaldia antolatu dute hile honen 28rako eta, ondorengo egunetan, karta eta bingo txapelketak ere izango dira —azaroaren 25a baino lehen eman behar da izena—. Abenduaren 1ean Aritzta Moso abeslariaren saioa egongo da.

Bazkide egunagaz amaituko dute kultur astea. Anaiarteko bazkaria, musika eta dantzaldia izango dituzte. Hilaren 25era arte eman daiteke izena.

Santo Tomasen txakurrak lotuta izateko eskaera

IZURTZA J.D.

Gero eta gehiago dira Durangotik Santo Tomas parkera euren txakurrekin oinezan joaten diren pertsonak. Santo Tomas ondoan umeendako parke bat dago, eta batzuek txakurrak lotu barik uzten dituzte gune horretan. Gainera, jabe batzuek parkeko elementuetan gora eta behera ibiltzen uzten diete txakurrei. Jarduera mota horien berri eman diote herritarrek alkateari. Ildo horretatik, “umeen parkea umeentzat dela eta ez txakur-errentzat”, gogoratu du Lorea Muñoz alkateak, eta inguru hartan “txakurrak lotuta” eramateko eskatu du.

Igerilekuetarako diru-laguntzak eskatu daitezke

MALLABIA J.D.

Mallabian ez dago igerilekuri, eta ondoko herrietakoak erabiltzeko diru-laguntzak eskaintzen ditu udalak. Abenduaren 15era arte, 2017an Berriz, Eibar, Markina-Xemein eta Ermuako kiroldegietan dauden igerilekuak erabiltzeagatik diru-laguntzak eskatu daitezke. Udaletxean edo kultur etxean aurkeztu daitezke dokumentuak: eskaera orria, eskaitzailearen NANaren fotokopia eta igerilekua erabiltzeagatik ordaintutakoaren agiria.

ABADIÑO A.M.

San Trokaz jaietarako udaletxe berria edukiko dute abadiñarrek, Jose Luis Navarro alkatearen berbetan. Azaroaren 13an amaituko da proiektu proposamenak aurkezteko epea. Esleipena egin ostean, obrak ahalik eta arinen hastea gura du. Alkatearen ustean, obrak lau hilabete iraungo du. Guztira, 300.000 euroko gastua izango dela aurreikusten dute udaletik. Pleno aretoa ezik, gainontzeko ia guztia eraberrituko da; besteak beste, igogailua jarriko da, irisgarritasun irizpideei jarraituta.

Udaletxe alboko eraikinean bulego berriak ditu udalak irailaz geroztik. Prentsagaz eginiko bisita gidatuan mintzatu da Navarro obra hauek egitearen garrantziaz. “Udaletxea herritarrengana hurbildu gura du. Horrez gainera, lan egiteko espazio atsegin bat sortu gura dugu”. Guztira, 264.000 euroko

300.000 euro inbertituko dituzte udaletxea eraberritzeko lanetan

Pleno aretoa ezik, ia beste guztia aldatuko dela adierazi dute udaletik



Jose Luis Navarro alkatea udalaren bulego berrietan.

inbertsioa egin da lokala egokitzeko lanetan. Eraikinak 268 metro koadro ditu, eta bulegoak hiru solairutan banatuta daude.

Bulego teknikoak, bere osotasunean, lokal berri honetan ezarriko da. “Udaletxea handitzeko proposamena barik, bi eraikin

hauek berritzeko aukera hobetsi genuen”, adierazi du. Obrak amaitu artean, langileak bi eraikinetan egongo dira beharrez.

‘Movember’ ekimen solidarioa martxan da Durangon, DRTren eskutik

Rugbi taldea izango da dinamika honen motore; dagoeneko herriko 10 klub en babesa jaso dute

DURANGO Markel Onaindia Durango Rugby Taldea kirol klub bat baino gehiago dela erakusten duen ekintzetako bat da asteon aurkeztu dutena —aurretiaz, sahararren alde inplikatu izan dira, adibidez—. Prostata eta barrabiletako minbiziaren aurka lan egiten duen *Movember* mugimenduaren motore izango dira Durangon, eta beste hainbat kirol talde gonbidatuko dituzte parte hartzera. Aurreko urteetan ere garatu izan den dinamikari bultzada emango diote horrela.

Argazkia igo

Iker Mendietak, Antxon Iriondok eta Santi Alberdik eman zuten, martitzenean, iniziatibaren berri. Hirurak biboteagaz, oraindik labur xamar, hile hasiera da eta. Herritarrei kanpainan parte hartzeko deia egin zieten, mobro.co/durangorugbytaldea webgunean izena emanda. Azaroan bibotea uztea da propo-



Ezkerretik hasita, Iker Mendietak, Antxon Iriondo eta Santi Alberdi.

samena, eta webgunera norbere argazkiak igotzea. Gainera, neskek ere parte hartu ahal dutela azaldu dute, bibotea utzi ezarren.

Dagoeneko, Durangoko hamar bat kirol talderen babesa dute. Esate baterako, etxeko neurketetan itsulapikoak ipiniko dituzte. Klub en ekarpenagaz, proiektua askoz gehiago hedatzea da euren asmoa.

Azaroan bibotea uztea da proposamena, eta norbere argazkia webgunera igotzea

Pintxopotera, biboteagaz

Dinamikari azaroaren 30ean emango diote amaiera, pintxopote berezi batez. Rugby tabernan *photocall* bat ipiniko dute argazkiak ateratzeko, eta lehiaketak ere eskainiko dituzte, biboterik originalenarena, besteak beste.

Hilaren 30ean batuko duten dirua *Movember* fundazioarentzat izango da. 2013az geroztik, 597 milioi euro batu ditu munduan, minbiziaren ikerketan inbertitzeko.

Emakume maputxeen egoera berbagai

DURANGO M.O.

Emakume maputxeek bizi duten egoera berbagai izango da datorren eguaztenean, hilak 15, Andragunean. 19:00etan hasiko den hitzaldian, *La mujer en las organizaciones mapuche* izenpean, Paula Huenumilla izango da hizlari. Txileko hegoaldean bizi diren emakume maputxeek erakundeetan duten partaidetza kontatuko du, eta jasaten duten indarkeria ere bai. Plataforma Feministak antolatatu du berbaldia.

Kobika jatetxea, Espainiako pintxo lehiaketan saritua

Saria pozik hartu dute Kortabitarte anaiek

DURANGO M.O.

Durangoko Kortabitarte anaieen Kobika jatetxeak sari garrantzitsu bat jaso du Valladoliden jokaturako Espainiako pintxo lehiaketan. Lumagorri oilaskoa eta onddoak osagai nagusi dituen pintxoak kontzepturik onenaren saria jaso du, eta pozik agertu da Iñigo Kortabitarte sortzaileetako bat. “Gure pintxoak harritu egin ditu epaileak”, azaldu du sukaldariak. Zazpi bider lortu dute finalean

sartzea, eta lehenengoz saritu dituzte. Ez da meritu makala, sukaldaritzaren mundua hartzen dabilen dimentsioa kontuan hartuta. “Gu txikiak gara, Durangokoak. Lehiaketara 800 jatetxe aurkezten dira, eta 41 sartzen dira soilik finalean”, dio Kortabitartek.

Pintxo horregaz Euskadiko 3. saria ere jaso zuten, besteak beste. Orain, Bizkaiko txapelketaren txanda izango da, azaroaren 25ean.



Kortabitarte anaiek eguaztenean, Valladoliden, saria jasotzen.

MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Eltua Industr., 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890
Tronperrl kalea, 1 DURANGO
Tel.: 946 811 737
Eraikuntzako materiala
Zeramika eta gresa

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
info@aldekootalora.com
692 859 779

Arrike
Liburudenda
Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

BERRIZ M. Zuazubiskar

Eskolako irisgarritasuna bermatu guran, Learreta-Markina kalea norabide bakarreko bihurtuko dute. Aste honetan hasi dira lanak, eta hiru hilabete iraupena izango dute.

“Learreta-Markina kaleko lanen proiektua duela askotik dago mahai gainean, eta datozen hilabeteetan burututa egongo dela esan dezakegu”, adierazi du Orlan Isoird alkateak.

Egun, Learreta-Markina kalean norabide biko errepidea, aparkalekuak eta errepidearen alde banatan espaloio estu bat dago. “Orain dagoen moduan kaleak ez du irisgarritasuna bermatzen, eta proiektua amaitutakoan eskola aurre guztiak irisgarritasuna bermatuko dela esan dezakegu”, esan du Orlan Isoirdek.

Egunero ehunka ume biltzen dituen kalean lanak bukatu ostean, bost bat metroko espaloioak izango dituela jakitera eman du alkateak. Horrez gain, proiektu berri honi esker, zebraide gehiago ere egongo dira, herriko gazteen eta, oro har, berriztarren segurtasuna bermatu dadin. “Eskola batek irisgarritasuna izatea ezinbestekoa da, eta honen inguruan segurtasuna egotea ere bai”, esan du Isoirdek.

Learreta-Markina kaleko lanetan, oinezkoen segurtasuna helburu

Norabide bakarreko kalea bihurtuko dute, irisgarritasuna bermatzeko asmoz



Hiru hilabete iraupena izango dute lanek.

Neurri berri honen aurrean, Learreta-Markina eskolako guraso elkarteak kideak pozik agertu dira. “Oso pozik gaud egingo diren lan hauen aurrean”, adierazi dute guraso elkarteak kideak. “Kale horretan ez dago segurtasunik eta umeek izugarritzko arriskua daukate”,

gaineratu dute.

250.000 euro inguruko aurrekontua duten lanak amaitzen direnean, Learreta-Markina kaleak norabide bakarra izango du, goranzkoa bakarrik, eta herrira sartu gura duten autoek Abeletxe Etxetaldea kaletik egin beharko dute.

“Goranzko erreia bakarrik egotea oso garrantzitsua da guretzat. Gaur egun, beherantz datozen autoak normalean herri guneetatik datozenak baino askoz bizkorrago etortzen dira, eta horrek oinezkoen arriskua handitzen du”, bukatu dute guraso elkarteak kideak.

Elkartekin batuko dira, aurrekontuak osatzeko

MAÑARIA J.Derteano

Aurrekontuak osatzeko, herriko kolektiboekin batzen hasi zen udala orain urte bi. Eredu horregaz jarraituz, aurtun herriko elkarteekin landuko dituzte.

Herriko elkartei gutun bana bidali diete asmoen berri emanaz. Parte hartzeko interesa dutenek azaroaren 15era arteko epea dute udalagaz hartu-emanetan jartzeko.

Bizkaiko Urtxintxa eskolaren aholkularitzagaz elkarlanean gauzatuko duten prozesua da eta helburu bi dituzte: elkarten arteko elkarlana sustatzea eta iritzi zein beharriak jasotzea, eta udalaren eta elkarten arteko harremana sendotzea.

Prozesua bi fasetan banatuko dute. Lehenengo, Urtxintxa elkarte bakoitzagaz harremanetan jarriko da. Gero, elkartekideekin hiru saio egingo dituzte. Ahalik eta elkartekideirik gehienekin egoteko asmoa erakutsi dute, diagnostikorik onena egin ahal izateko.

Etterik etxeko laguntza zerbitzua arautuko du Amankomunazgoak

CCOOk lan falta salatu du, eta zerbitzua sustatu dadila eskatu du protestan

DURANGALDEA M.O.

CCOO sindikatuak protesta egin zuen joan zen zapatuan Durangon, mendeko pertsonen etterik etxeko laguntza zerbitzuan lan falta dagoela salatzeko. Euren arabera, 2011n 80 ziren Durangaldeko zerbi-

tzuan lanean zeuden laguntzaileak, eta gaur egun 37 dira. Horregatik, “herritarrentzat oinarritzko den zerbitzua” sustatzea eskatu zioten Amankomunazgoari.

Amankomunazgoa zerbitzurako arautegi bat sortzen dabil,

Aitor Lopez presidentearen esanetan. Hala ere, CCOOren kritikei erantzun die. Alde batetik, “ez da zuzena” langile murrizketaren datua. “80 laguntzaile inoiz ez dira egon lanean Durangaldean”. Bestetik, langile kopuruaren murrizketa

bat egon dela onartuta, Lopezek argitu du eskariaren arabera dela. “Guk gure zerbitzua defendatzen dugu, profesionala delako. Baina, kontua da beharri txikitu dela. Orduak behera doaz, jende batek prestazio ekonomikoak aukeratzen duelako zerbitzuaren aurretik. Guk ezin ditugu behartu zerbitzua aukeratzera”, azaldu du presidentek.

Lopezek esan du ulertzen dituela langileen erreklamazioak, baina gogoratu du enpresa batekoak direla, Amankomunazgoak kontratatzen duena. Gainera, enpresak ere ez ei du

Berrikuntza teknologikoaz, IK-4 Azterlanen

DURANGALDEA M.O.

Durangaldeko Enpresen Elkarteak eta Tabira Fundazio institutuak jardunaldi bat antolatu dute hilaren 16rako, berrikuntza eta zaintza teknologikoa ardatz izango dituen. IK-4 Azterlan zentro teknologikoa izango da topagune, eta Amankomunazgoaren, Durangaldeko Lehiakortasun Poloaren, InnoBasqueren eta Euskaliten babesa dute gainera.

Enpresei eskainitako jardunaldi bat izango da, 08:45etik 11:00etara bitartekoa. InnoBasqueko Iñaki Ganzarain eta

InnoBasqueko Iñaki Ganzarain eta Sistepanteko Borja Arenaza izango dira hizlari

Sistepanteko Borja Arenaza izango dira hizlari, besteak beste. Inskripzioa doakoa da, baina plaza mugatuak ditu.



Zapatuan lanpostuen defentsan mobilizatu ziren etterik etxeko laguntzaileak.

Lopez: “Orduak behera doaz, jende batek prestazio ekonomikoak aukeratzen duelako”

langilerik kaleratu, aurrejubilatu soilik.

Uneotan, mendeko direnek ezin dituzte adituen laguntza eta prestazio ekonomikoak batera eskatu. Baina, Amankomunazgoko gobernuak (EH Bildu-Herriaren Eskubidea) arautegi bat lantzen dabil, eta zerbait malguagoa egin gura du.

Ziztada Guneko kideak eraikina husteko unearen zain daude

ZORNOTZA Markel Onaindia 2015eko maiatzean Luis Urrengoetxea kaleko eraikin bat okupatu zuten hainbat lagunek, eta proiektu alternatibo bati hasiera eman zioten. Ziztada Gune Askea deitu zioten. Baina, eraikinaren jabeak lasterrera jarri zuen salaketa, eta bide penaletik zein zibiletik auzibideak zabalik egon dira. Irailean, esaterako, lau pertsona epaitu zituzten Durangoko epaitegian. Epaileak eraikina azaroaren 14rako husteko agindua eman zuen. Beraz, okupatutako gunea noiz hustuko zain daude Ziztadako kideak. Ixteko arriskua agertu zenetik, proiektuari babesa agertu diote herriko zenbait elkartek.

Hala ere, azken egunera arte eraikina erabiltzen jarraitzeko asmoa dute. Adibidez, Luis Urrengoetxea kalean as-teburuan ospatuko diren jaien harira, biharko erromeria bat antolatu dute bertan, Burdin Haria elkarteak sustatuta.



Gorosabel anaiek abesti zahar eta berriez osatutako ikuskizuna dakarte Zornotzara.

Su Ta Gar, Luis Urrengoetxea kaleko jaietako protagonista

Eibarko taldeak zapatu gauez eskainiko du kontzertua, Zelaieta parkean

ZORNOTZA Joseba Derteano Domekara bitartean Luis Urrengoetxea kaleko jaiak ospatuko dituzte Zornotzan. Lutaber elkarteak hainbat musika kontzertu antolatu ditu eta, denen gainetik, Su Ta Garrek eskainiko duena nabarmentzen

Gaur txistularien saioa egongo da 19:00etan, eta punk-rock kontzertua 22:00etan

da. Eibarko metal taldeak bere abesti klasikoak zein berriak erakutsiko ditu zapatuan, Zelaieta parkean. Emanaldi nagusiaren aurretik, 21:30ean, Zona Especial Nortek RIP taldearen bertsioekin osatutako kontzertua eskainiko du.

Egunean zehar ere ez da faltako musika doinurik. Eguerdiko giroa tritikulariek berotuko dute, eta 18:00etako poteoa Kittu txarangak alaituko du. Ekitaldi bien artean sukalki txapelketa egingo dute.

Atzo hasita

Jaiak atzo hasi zituzten, 19:00etako txupinazoagaz. Gaur txistularien saioa egongo da 19:00etan, eta punk-rock kontzertua 22:00etan. Beste bertsio talde bat izango da protagonista: Tocan2 La Polla talde nafarra. Kasu honetan, La Polla Records taldearen klasikoak joko dituzte, formatu berezian jo ere, kaxoi flamenkoarraren eta gitarraren laguntzagaz.

Domekako egitaraua ekitaldi bik osatzen dute. 12:00etan Antxon magoak magia saioa eskainiko du Harrison Parkean. Azkenik, 15:00etan, Lutaber errifaren zozketa egingo dute Euskal Herria enparantzan. Irabazleak 600 euroko balioa duen bidaiia bonua irabaziko du. Bigarren saridunak Marques de Vitoria upategirako bisita eta bazkaria irabaziko ditu, eta hirugarrenak abenduaren 3an Athleticek eta Real Madril jokatu duten futbol partidurako sarrera bi lortuko ditu.

Elorrioko guraso elkarteetako kideek euskara izan dute berbagai, asteon

Herrian euskararen erabilera indartzea gura du Elorrioko Udalak



Berbaro Elkarteko kideek tailerrak eskaini zituzten.

ELORRIO M. Zuazubiskar Aste honetan, Elorrioko Udalak bultzatuta, euskararen inguruko motibazio saioak eskaini ditu Berbaro elkarteak. Herri Ikastetxeetako Guraso Elkarteetako kideei euskararen inguruko motibazio saioak eskaini dizkiete. “Denbora dezentez gabiltza guraso elkarteetako kideekin lanean, eta arlo honetan euskararen erabilera sakondu beharra genuela sentitzen genuen”, adierazi du Bittor Uriarte Elorrioko euskara teknikariak.

Berbaro Elkarteetako eskainitako tailerretan, euskararen normalizazio bidean kontuan hartu beharko liratekeen pausoak jorratu zituzten gurasoekin batera. “Gainera, euskararen erabilera ze esparrutan hobetu beharko litzatekeen ere zehaztu genuen”, adierazi du Amaia Ugalde Berbaro Elkarteetako kideak.

Horrez gain, euskararen egoera eta Elorrioren nolako era-

Zenbait gurasok kezka adierazi dute beraien seme-alaben euskararen erabilpenarengatik

bilera dagoen ere jorratu zituztela jakitera eman dute.

Bestalde, guraso elkarteetako kideek beraien seme-alaben euskararen erabilpenaren inguruan dituzten kezkek plazaratu zituzten tailer hauetan. “Tailerrean batu ziren zenbait gurasoren iritziz, seme-alabek euskaraz bizitzeko aukera guztiak dituzte, baina, hala eta guztiz ere, gaztelaniara jotzen dute”, adierazi du Ugaldek. Hori horrela, hizkuntza ohituretan zerk eragiten duen eta gurasoek euskaragaz duten harremana zelakoa den hausnartu zutela esan du.

Elorrioko Udaleko kideak, berriz, lehen saioaren ostean herrian euskara indartzeko lanean jarraituko dutela esan du.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

hitz #gomendioak
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT ITZULERA
Martin Bidaur
2017

UME ETA GAZTEENTZAT HONTZ KUMEAK
Wadell & Benson
2017

MUSIKA HIRI KRISTALEZKOA
Rafa Rueda
2017



Apatan ipinitako bozkalekuaren irudietako bat, domekan.



Koikili Lertxundi futbolari ohia, Otxandion, botoa ematen.



Etxebarri jatetxeko Bittor Arginzoniz sukaldari ospetsua, Axpen.



Dolores Uribe, demokrazia sasoiko bigarren legegintzaldian Otxandioko zinegotzia izandakoa.

928 herritarrek parte hartu zuten, domekan, Gure Esku Dagoren herri-galdeketa

Atxondon 430 herritarrek parte hartu zuten, eta Otxandion 498k; baiezkoak izan ziren nagusi

ATXONDO/OTXANDIO J.G./M.O. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina atxondarrak eta otxandiarrek ez ziren etxean geratu domekan, Gure Esku Dago mugimenduak antolatutako herri galdeketa egunean. Atxondon 430 herritarrek parte hartu zuten, eta Otxandion 498k. Beraz, guztira, 928 lagunek eman zuten iritzia, eta erabakitze eskubidea babes-

tu zuten horrela. Euskal Herriko beste hamaika herritan ere egin zituzten galdeketa.

Datu onak

Parte-hartze datu onak lortu zituzten Durangaldeko herri bietan, gainerako herrietan zein aurretik eskualdean lortutako emaitzei erreparatu gero. Atxondon %31,41era heldu zen boto-emaille kopurua, eta Otxan-

dion, ostera, %46,98ra; kasik otxandiarren erdiek parte hartu zuten, beraz.

Atxondon %31,41era heldu zen boto-emaille kopurua, eta Otxandion, ostera, %46,98ra

Atxondon 324 baiezko, 38 ezezko, 6 zuri eta 8 baliobako zenbatu zituzten. Otxandion 459 baiezko, 16 ezezko, 14 zuri eta 9 baliobako.

Bonbardaketa gogoan

Apatan eta Axpen ipini zituzten atxondarrentzako bozkalekuak, eta taloa janda egin zioten aurre hotzari. Otxandiarren kasuan, nabarmentzekoa da ekitaldi bat

egin zutela Andikona plazan, eta 1936ko bombardaketa hildakoak oroitu zituzten, Nestor Basterretxearen eskultura lore eskaintza eginda. “Bozkatzea, gaur, gure ardura; haiei guztiei diegu zor”, kantatu zuen bertso-lariak ekitaldian.

Galdeketa eginda, erabakitze eskubidean sakontzen jarraituko dute.

Bonbardaketa hildakoak oroitu zituzten, Nestor Basterretxearen eskultura lore eskaintza eginda

Letxeria inguruko bide zatian asfalto inprimatua bota dute

Oinezkoek lehentasuna izango dute inguru horretan bidea gurutzatzeko



Oinezkoen lehentasuna nabarmendu gura izan dute asfalto inprimatuagaz.

OTXANDIO Joseba Derteano Letxeria inguruan bizi direnentzat hango bidegurutzeari pasabide nagusia da Artekalera — Otxandioko erdigunera — joateko. Horrelako bidegurutzeari oinezkoari lehentasuna ematea da udalaren asmoa eta, horregatik, gune horretan, Urigoiena eta Indusi arteko errepide zatian, ohiko asfaltoa kendu eta asfalto inprimatua jarri dute. Joan zen asteko barikuan egin zituzten lanak. Espazio hori espaloiare mailara ere igo dute, oinezkoen lehentasuna gehiago markatzeko.

Asfalto inprimatua duen zati hori pintatu egingo dute gainera, aldaketa oraindino nabaria goa izan dadin. “Auto bat handik pasatzen denean, herrigunera sartzen ari dela eta abiadura gutxitu egin behar duela ohartaraztea da helburua. Oinezkoek

lehentasuna dute, eta autokoek jakin behar dute handik igarotzean herritarrek bidea gurutzatzen aurkitu ditzaketela”, adierazi du Urtzi Armendariz alkateak. Oinezkoen lehentasuna gogoratzen duen seinale bertikal bat ere jarri dute espazio horretan.

Etorkizunean ekintza berdinak egin gura dituzte herriko beste puntu batzuetan

Etorkizunean ekintza berdinak egin gura dituzte Otxandioko beste toki batzuetan; Samartoin, eskolarantz hartzeko bidegurutzeari eta Oletara doan biribilgune inguruan, esate baterako.

Herri Eskolako galdara-gelako matxurei amaiera jarri gura diete

Atxondoko Udalak eta Jaurlearitzak ordainduko dituzte eskolako lanak



Sei bat urte igaro dira Atxondoko Herri Eskolan eraikin berria egin zutenetik.

ATXONDO M. Zuazubiskar Sei bat urte igaro dira Atxondon 1.580 metro karratu dituen eraikin berria eraiki zutenetik. Or-

duz geroztik, Atxondoko Lehen Hezkuntzako ikasleak eraikin horretan daude. Azken hilabeteotan, berriz, eraikin horretan

dagoen galdara-gelan sortutako hainbat matxuraren ondorioz, ikasleen ikasketa orduak eten egin behar izan dituzte.

Galdara eraikinaren goiko pisuan dago eta, matxurak izan direnean, galdarara doan hodia hautsi denean, eraikin guztia urez bete da. “Hasieratik arazo bat egon da galdara-gelan. Ez da normala eraikin berri batean horrenbeste matxura izatea, eta, Jaurlearitzako Hezkuntza Sailagaz elkarlanean, arazo horiei amaiera eman gura diegu”, adierazi du David Cobos Atxondoko alkateak.

Hori horrela, eta arazo estruktural hori konpontzeko, ne-gu honetan galdara-gelan obrak egingo dituztela jakitera eman du alkateak. “Arazo honi amaiera jartzea beharrezkoa da, kalte izugarriak eragiten baititu”, gaineratu du.

Hala ere, Atxondoko Udala aurretik ere arazoa hainbat aldiz konpontzen ahalegindu dela esan du Cobosek. “Azken hileotan hainbat konponketa egin behar izan ditugu. Eta beste matxuraren bat egonez gero, dena urez ez betetzea bermatu gura izan dugu”, bukatu du alkateak.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RIOS SANTIAGO
SQ-2D



Etika eta estetika

Durango herri aberatsa da elkarte, plataforma, mugimendu sozial, auzo elkarte eta abarrei dagokienez. Azken batean, sozietate zibil aldarrikatzailea, antolatua eta solidarioa da.

Beti egon da errealitate eta eskakizun sozial horri askotan sorgor begiratu dioten instituzio politikoekin ginetik. Gaur egun instituzio politikoek ezin diote jendearen aldarriari bizkarra eman. Izan ere, herriak gardentasuna eta parte-hartze publiko handiagoa eskatzen du, durangar guztioi baitagokigu bizitza publikoa, ez elitei bakarrik.

Gure herriak oraintsu onartu ditu parte-hartze hori aurrera eramateko erremintak, beharrezkoak direnak herritarren eskaera eta beharrei erantzuteko. Baina ikusi egin behar badagoen borondate politikorik erreminta horiek erabilgarri jartzeko. Urratsa erraza da: alde estetikoetik (“parte hartzeko erremintak ditugu”) alde etikora (“parte hartzeko erremintak herritarrei utzi eta emaitzak beteko ditugu”) igarotzea.

Hartara, agenda sozialean dauden herritarren gai eta aldarrikapen horiek guztiak aintzat hartuko dira: aurrekontu parte-hartzaileak, airearen kalitate eskasa, lekuri eza haurren eta gazteen aisialdirako, TAOaren zerbitzu berria, tren geltokiko lursailen erabilera berde eta soziala, ikusgaitasun eza zeharabideetan, zentro zibikorik eza, OHZ justuagoa, zabor-bilketako eta garbiketako zerbitzu eskasa... Izango ote gara ausartak alde estetikoetik etikora igarotzeko?

**Erredakzioan itzulia*

Martzako San Martin jaiak, asteburuan

ATXONDO M. Z. Zapatuan eta domekan San Martin jaiak ospatuko dituzte Atxondoko Martza auzoan. Bihar, San Martin egunean, ohitura den bezala, auzoko jubilatuek bazkaria izango dute, 13:30ean.

Domekan, 11:00etan, Martzako Martin Deunaren elizan meza nagusia egongo da.

Meza ostean, 11:45ean, San Martin jaietara joan diren lagun guztientzat luntxa egongo dela jakitera eman dute antolatzaileek.

Horrez gain, domeka eguerdia musikagaz girotuko dutela eta, jendeari bertara joateko deia egin diete auzotarrek.

100 lagun elkartu ziren Lantziegoko “senideen” bisitan

GARAI Markel Onaindia Joan zen zapatuan Lantziegoko (Araba) bizilagun batzuen bisita eduki zuten Garain, eta egun osoko jai batez ospatu zuten. 2013az geroztik ofizialki senide dira herri biak, eta urtero-urte-

ro bisitak trukatzeko dituzte. 100 bat lagun batu ziren zapatuan. Besteak beste, bazkaria egin zuten pilotalekuan, Juantxu Larruzeak sukaldariak prestatuta.

Martxan, jende ugari Bestalde, domekan triatloi taldeak antolatutako mendi martxan jendetza batu zen. Oinezko bidean 78 lagunek parte hartu zuten, eta bizikletakoan 102k.

DURANGALDEA ASTEON

Giza-partaidetza sustatzeko tailerra

DURANGALDEA > Gaur egungo munduan parte hartzeko gakoak ikastaroan izena emateko aukera dago azaroaren 30era arte. Garapen pertsonala landu, egungo gizarte eta inguru hurbila aztertu eta giza-partaidetza sustatzea helburu duen tailerra urtarrilaren 8an hasiko da, Durangaldeko Behargintzan.

Helduen irakurketa taldea, Otxandion

OTXANDIO > Literaturaz gozatzeko asmoz, helduentzako irakurketa taldea sortu berri dute Otxandion. Herriko nagusiek azaroaren 10ean izango dute hurrengo hitzordua, 18:30ean, liburutegian. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hilabete honetako liburua *Pu Songlingen Ipuinak* dira.

Gure Esku Dagok herri batzarrera deitu du

ABADIÑO > Abadiño Gure Esku Dago elkarteak herri batzarrera deitu du azaroaren 14an, martitzenean. Zelaietako Txanporta kultur etxean izango da, 19:00etan. Gure Esku Dago dinamikaren aurrera begirako plangintza proposamena azaltzea eta ekarpenak jasotzea da batzarraren helburua.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

Giza katerako deialdia

Sarek deituta, azaroak 11, larunbata, 12:00etan Basauriko kartzelatik osasun etxera joango den Giza Katean parte hartzeko gonbidapena egin, eta ekimena egitera bultzatu gaituzten arrazoiak azaldu nahi ditugu gutun honen bidez.

Gaixotasun larriak dituzten euskal presoek egoera eta, bereziki Ibon Iparragirrerena, kezkarriak dira. Ibon Iparragirreraren senideek bere egoeraren berri eman dute zenbait agerralditan. Duela hilabete inguru auzi medikuek azterketa egin zioten, eta azterketa horren emaitzak ezin kaskarragoak izan dira. Iparragirreraren defentsak hogeira jaitsi dira —persona osasuntsu batek 720 eta 1.150 bitartean izan ohi du defentsen maila; 500etik behera jaisten denean

Mariam Bilbatua (Durangaldeko Sare)

egoera kezkarria izaten hasten da—. Egoera “muturrekoa” da, eta auzi medikuek ez dira ausartzen esaten diagnosi horrekin Iparragirrerri zenbateko bizi itzaropena gelditzen zaion.

Kode Penalaren zein Espetxe Arautegiaren arabera Ibon Iparragirrek eta gaixotasun larriak dituzten beste euskal presoek, haien artean Gorka Fraile preso durangarrak, tratamendu duina jasotzeko eskubidea dute eta tratamendu hori espetxetik kanpo jaso behar dute. Ezin dugu utzi gorrotoak eta mendekuek legalitatea eta demokrazia ordezkari deitzen. Giza eskubideak errespetatzea eskatzen dugu, pertsona orok, presoek barne, dituzten eskubideak errespetatuak izatea hain justu.

Giza katearen bidez egoera salatu eta ikusgarri egin nahi dugu. Parte hartu!

> Berbaz

Koldo Katxo Ultra SJ | Jesuiten Etxea elkarteko presidentea | Tuter, 1957

> BERBAZ Aitziber Basauri
Hamarkada bete du Jesuiten Etxeak. 2007an abiatu zuten Etorkinentzako harrera eta gizarteratze proiektua, eta urte hauetan 49 lagun hartu dituzte bertan. Urteurrena ospatzeko, hainbat topaketa egin dituzte, eta aurrera begira beste ekintzarik ere egongo dela aurreratu digu Koldo Katxo elkarteko presidentea.

Hamar urte bete ditu Jesuiten Etxeak. Premiak berdinak dira gaur egun?

Profila aldatu da apur bat. Duela hamar urte nahiko ezkutuan bizi ziren etorkinak, patera pisuetan. Ezkutuan, erroldatu gabe. Ez zuten zerbitzurik edo diru-laguntzarik eskatzeko eskubiderik. Ez ziren existitzen. Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta lan egiteko baimena lortzeko, ezinbesteko baldintza zen urtebete erroldatuta egotea —2012tik aurrera, hiru—. Nahiko isolatuta bizi ziren, jatorrizko herrialdeko elkarte edo talde gutxi zeuden, eta bizitokiaz gain maila afektiboan ere premia handia sentitzen zuten. Gehienek harreman gutxi zituzten. Pateran iritsiak ziren asko, eta Durangon agertu ziren. Eskolak eta bizitokia eskaintzeaz aparte, asteburuko planak egiten genituen. Desberdina da orain.

Zein zentzutan?

Pisuetan, erdi ezkutuan bizi dira asko, baina etorkinen jatorrizko herrietako elkarte eta taldeak ugaritu, indartu egin dira urte hauetan: meskita bi daude inguruan, Ghana edo Nigeriako eliza ebanjelikoak, elkarte folklorikoak... Gaur egun etorkinek arlo afektiboan ez dute behar lehen besteko sostengua, babestuago daude.

Nola sortu zen Jesuiten Etxea?

Hainbat gauza batu ziren: bate-tik, irakasle izandako zenbait jesuita jubilatuta ziren, denbora eta prestakuntza zutenak, eta, bestetik, jesuiten artean bazen halako sentsibilitate bat etorkinei eta errefuxiatuei laguntzeko. Gauzak horrela, ikusi genuen gure etxean jesuita gutxi geundela, eta tokia genuela. Aurretik, Durangaldeko Mankomunitateagaz, Karitasegaz, Durangoko Udalagaz eta beste erakunde batzuekin harremanetan jarrita geunden, etorkinei begira zeintzuk premia zeuden jakiteko. Premiazkoa etxea zuten etorkinek, erroldan agertu eta eskubide guztiak bereganatzen

“Galdera ikur askogaz, baina amets bat izan da guretzat Jesuiten Etxea”

Jesuiten Etxeak, etorkinentzako harrera eta gizarteratze proiektuak, hamarkada bete du aurrean



“**Etorkinen jatorrizko herrietako elkarte eta taldeak ugaritu, indartu egin dira urte hauetan**”

joan zitezten. Gure indarrak eta haien premiak aintzat hartuta, aurrera egin genuen 2006an.

Hamar urteotan zenbat lagun bizi izan dira Jesuiten Etxean?

Guztira, 49 lagun bizi izan dira gugaz. Gehienak 20-40 urte arteko gizonak eta Afrika beltzetik etorritakoak: Senegal, Boli Kosta, Nigeria, Mali, Ekuatore Ginea eta Ghanatik. Marokotik eta Saharatik ere bai. Bi emakume baino ez dira egon: bi seme-alabekin etorritako andre saharar bat eta Errumaniako neska bat.

Proiektu inklusiboa da. Zenbat denbora egiten dute zuekin?

2012an legea aldatu zen arte, urtebete egiten zuten gurean. Hori beteta, diru-laguntzak eskuratzeko zituzten eta independiza-

tu egiten ziren. 2012tik aurrera, berriz, bigarren urte bat ere bermatu ahal izateko, pisu bat daukagu Durangon, Jesuiten Etxearen babespean. Beste erakunde edo elkarte batzuekin lortzen dute legeak eskatutako hirugarren urtea betetzea. Hemen bizi bitartean ikasi egin behar dute, betebeharreko baldintza da hori. Ez dugu gura gazte hauek kaleran lan beltzean edo ezer egin gabe egotea. Hezitzaileak gara, formakuntza ematen diegu, eta diziplina, manerak, ordutegiak... ere lantzen ditugu.

Nola doa gero gizarteratzea?

Lan munduan sartzeko, hizkuntza muga handia dute. Gaztelania beharrezkoa dute, ez bakarrik kontratu bat lortzeko, ikastaro bat egiteko ere bai. Bestalde, non bizi garen eta gure egoera linguistikoa ere azaltzen diegu, euskara ere ikasi behar dutela. Izan ere, gehienak inguruan geratzen dira. Ez da oso ohikoa, baina hemen bizi izan zen gizon bat Elorrioko neska batez ezkondu berri da. Batzuk Europara doaz, familia-koak han dituzte-eta. Jaioterri-

“**Hemen bizi diren bitartean ikasi egin behar dute, betebeharreko baldintza da hori**”

ra itzultzea porrota da beraienez, jasanezina, esaten digutenez. Lan bat aurkitu eta diru pixka bat aurreztu ostean bueltatzen dira, sei-zortzi urtera. Han ezkontzeko.

Hamarkada beteta, nolakoa da balorazioa?

Galdera ikur askogaz, baina amets bat izan da guretzat Jesuiten Etxea. Orokorrean, oso pozik gaude, eta eurak ere bai. Eskertuta. Batez beste, 80 urte ditugu guk, eta gure arteko berba-gaiak eta munduarekiko gure kezak eguneratzeko, gaur egunera ekartzeko, ondo etorri zaigu. Gaztetasuna, itxaropena, ilusioa... ekarri dizkigute. Migrazioaren ozeano izugarrian tanta bat dira, baina guretzat esanguratsuak dira.

Oraindik ere premiazkoa da proiektu hau?

Bai. Hala ere, etorkizunari begira zalantza asko sortzen zaizkigu. Errefuxiatuak etortzekoak dira, ez dakigu noiz, baina administrazioak denpora batean emango die babes. Eta gero, zer? Gobernu kanpoko erakundeok hartu beharko dugu esku. Egia da zortzi jesuita gaudela, zahartu egin gara, eta gero eta gehiago kostatzen zaigu. Eskerrak laiko talde bat dugula lan boluntarioa egiten. Jubilatuta batzuk etortzen dira eskolak ematera, eta beste herritar talde batek ere, gazteagoak, lagundu egiten digu asteburuetan ekintzak antolatzen.

Ongietorri Errefuxiatuak eta Arroces del Mundo elkarteekin lankidetzan ari zarete. Nolakoa da elkarlan hori?

Zubiguneak sarean etorkinekin edo arlo sozialean lan egiten dugun 10-15 elkarte gaude, eta hainbat ekintza egiten ditugu. Aberasgarria da. Mankomunitateko gizarte teknikariekin ere bagabiltza. Elkarri laguntzeko modua da.

OSASUN GIDA

OPTOMETRIA

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriar teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

PSE: 162/13

FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119/13

PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963

PSE: 57/16

HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

PSE: 155/17

PODOLOGIA

**PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA**

GOIATZ MURUA
PODOLOGOA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOA

NEREA RODRIGUEZ
PODOLOGOA

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea DURANGO

Tel.: 946 203 630

PSE: 148/13

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

PSE: 16/09

PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

PSE: 63/63

ODONTOLOGIA

clínica dental hortz klinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**
ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uedental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

PSE: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

PSE: 112/13

PSIKOLOGIA

JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz


Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

PSE: 62/11



AMaiUR, 1512

Oso aspaldi iragandako gertaera dela gogoan hartuta, badira gutxienez sei elementu irudi honetan aurkitu beharko ez genituzkeenak, gehienak artean asmatu gabeak zirelako. Zeintzuk dira?



DOMINO ZATIA

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.

SUDOKU KOLORETSUA


Sudoku hau ongi osatzeko, kolore egokiaz margotu beharko dituzu biribil zuriak. Gogoratu kolore bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe bakoitzeko, lerro bakoitzeko eta sei laukik osatzen duten area bakoitzeko.

Hauak dira aukerak:

●	○	○	●	●	○
●	○	●	○	○	○
○	○	○	○	○	○
○	●	○	○	○	○
○	●	○	●	●	○
○	●	○	○	○	○



Erretratu hauetan ikusten dituzun lagun hauek denak ikaskideak izan ziren txikitan. Begira iezaiozu orain dela 25 urte egindako argazkiari. Ba al dakizu zein den zein?



10


Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

asmatu

Ba al dakizu zer dioen esaerak?

- Inor ez da ...
- 1 ... bat-batean tximino bihurtzen.
- 2 ... norberaren haurra bezain eder.
- 3 ... amaren bularrean aspertzen.
- 4 ... ikasia jaiotzen.
- 5 ... amarekin harrotzen.
- 6 ... sehaskatik matematika zale.
- 7 ... ondo jan gabe inora heltzen.
- 8 ... ametsik egin gabe bizi.



**JOSTAILU DIDAKTIKOA
LIBURUDENDA-PAPERDENDA**

-- Alluitz, 7 DURANGO --
azideiakdenda@gmail.com
INFORMA ZAITEZ: 688 726 424

**ORDUTEGI
MALGUA**

**ADIN
GUZTIENTZAT**

**HAINBAT
TAILER**

Jostura
Eskulanak
Scrapbook
Pachwork
Kakorratz
Marrazketa tailerra
Sormen tailerra
Ahozko ingelesa
garatzeko tailerra



IURRETA

**Tellitu-n
hurrengo
eraikuntza**

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

**Etorri
ikustera!**

DURANGO
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren
2 etxebizitzak!**

Durango herrigunean

*Energia eraginkortasun
handiko etxebizitzak*

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

Itsaso Larrauri Rebollo (1979) | Idazlea | Abadiño

“Biografia barik nobela idaztea erabaki nuen, inor mindu ez zedin”

‘Verte más que respirar’ nobela erromantikoa kaleratu du Itsaso Larrauri abadiñarrak

> LITERATURA Jone Guenetxea
Michel Tytgaten eta Maite Azkarateren maitasun istorioan inspiratutako liburua kaleratu du Itsaso Larrauri idazleak bere lehenengo lan lez. Abadiño islatuta agertzen den nobela erromantiko honetan bi protagonistek elkarregaz egoteko izan zituzten oztopoak azaltzen ditu.

Ondo ezagutzen duzun maitasun istorio batean oinarritu zara liburua idazteko.

Bai, nire senarraren gurasoen bizitzan oinarrituta dago. Aita frantziarra da, eta 1969an Paristik Portugalera auto-stop eginez joateko asmoa zuen. Bidean, Deban gelditu zen, eta hantxe ezagutu zuen nire amaginarreba. Beraien familiek ez zuten harrema hori begi onez ikusi. Liburuan argumentua aldatu dudan arren, errealitatean beraiek hilabete askotan elkar ikusten egon ziren. Michel Frantziatik Maite bisitatzea etortzen zen.

Azkenean, Maite etxean giltzpetu zuten eta ez zioten kalera irteten uzten. Kanean Micheli buruz zurrumurruak sortu ziren. Kalera biluzik irteten zela eta horrelakoak esaten zituen jendeak.

Zelan jarritu zuten elkar ikusten egoera horretan?

Ihes egin zuten. Lehenengotan, jendea engainatzearen, hegoaldera joan ziren auto-stop eginez. Ondoren, muga zeharkatu zuten. Michelen herrira joan ziren eta, han zeudela, Maiteren gurasoak agertu ziren. Etxe hori hain kristaua zela ikusita eta dagoeneko harremana sortuta zegoela ikusita, ezkontzea erabaki zuten. Frantzian bizitzen egon eta gero, hona itzuli ziren, lehenengo Abadiñora, eta gero Durangora.

Zerk bultzatu zaitu istorio hau kontatzera?

Maite orain 10 urte hil zen. Berak beti zioen maitasun istorio



‘Verte más que respirar’ nobela Durangoko Hitz eta Urrike liburu dendetan dago salgai.

hau liburu bat idazteko moduko zela. Koaderno bat oparitu nion autobiografikoa izan zedin, baina ez zuen idatzi. Hala ere, nik hainbat pasarte entzun nizkion eta, omenaldi legez, liburua idaztea erabaki nuen.

Familiako istorioa kontatzea ardura handia izango da.

Gertatu zen moduan kontatzea ardura handia izango litzateke. Izan ere, pertsona asko bizirik daude eta deseroso sentitu daitezke. Horregatik, biografia barik nobela idaztea erabaki nuen,

inor mindu ez zedin. Liburuan dena hilabete batean zentratzen da. Beraz, gauza asko oso ezberdin idatzi ditut. Liburuan, ihes egindakoan Parisera doaz eta hantxe geldituko dira. Alaba bat izango dute, eta iloba Anais. Beraz, fikzioan Anais Abadiñora itzuliko da, amonaren herria ezagutzera. Bitartean, Oier ezagutuko du, eta, horrela, bi maitasun istorio uztartzen dira.

Familiak zelan hartu du?

Ez dut inor identifikatuta sentitzerik gura izan. Liburua bizi-

pen horietan oinarrituta egon arren, pertsonaiarik gehienak fikziozkoak dira. Michelek irakurri egin du, eta esan zidan irakurtzerakoan negar piloa egin zuela. Bere onespina izatea garrantzitsua izan da niretzat.

Zure lehenengo lana blog batean idatzi zenuen.

Idea bat nuen buruan eta blogean idatzi nuen. Ez publikatzea pentsatu nuen, eta blog bat zabaldu nuen. Astean kapitulu bat kaleratzen nuen. Jarraitzaileak izaten hasi nintzen.

Miren Amuriza, finalaurrekoen bigarren itzulirako txartelaren bila

“Urduri, baina gogoz” dago berriztarra domekarako; saioa 17:00etan hasiko da

> BERTSOLARITZA A.Maldonado
Txapelketa Nagusia Durangora iritsiko da etzi. Miren Amuriza finalaurrekoen bigarren itzulirako sailkatzen saiatuko da leporaino beteta egongo den Landako Gunean. 17:00etan hasiko da saioa, eta sarrera guztiak salda daude. Domekakoa finalaurrekoetako lehenbiziko itzuliko laugarren kanporaketa izango da. Amurizagaz batera, Aitor Mendiluze, Iñaki Apalategi, Jon Maia, Miren Artetxe eta Oihana Iguaran arituko dira abesten. Amaia Ugalde elorriarrak egingo ditu aurkezle lanak. Zallako (Bizkaia) final-laurdenetan lor-



Miren Amuriza Zallako final-laurdenetan abesten.

tu zuen berriztarrek Durangoko finalaurrerako txartela. “Urteak dira txapelketa bateko saio batetik Zallatik bezain sentsazio onagaz ateratzen ez nintzela, eta horrek asko lagundu dit etxeko lanak egiten jarraitzeko eta Durangora segurtasun apur bat gehiagogaz joateko”, azaldu du Amurizak.

Helburua lortuta, gogotsu dago berriztarra aurrera egiteko. “Nire helburua finalerdietara pasatzea zen. Beraz, alde horretatik, helburua beteta eta pozik nago; hemendik aurrera, dena izango da ongi etorria”, esan du.

Elortza, emaitzen esperoan
Bestalde, kanporaketa honetako emaitzen zain dago Igor Elortza. Durangarra bigarren gelditu zen bere finalaurrekoan. Halere, lortu zuen puntuaketa altuari esker, nahiko eskura du bigarren itzulirako sailkatzea.

‘Drag-e uraren bila’ Durangora iritsiko da etzi

> ANTZERKIA A. M.

Durangoko San Agustin aretoan antzeztuko dute Elorrioko Logela Multimedia taldearen *Drag-e uraren bila*. Duela hiru aste, Arriola ume eta gurasoz bete zen antzezlari multimediaz gozatzeko.

Elorrioko taldeak publiko familiarrarentzat prestatu duen hirugarren ikuskizuna da hau, eta bi urteko lanaren emaitza da. Zenbait diziplina nahasten dira bertan, hala nola antzerkia, bideo animazioa, dantza, musika eta robotika. Dantzari eta aktoreez gainera, bi robot ere arituko dira taula gainean. 18:00etan hasiko da emanaldia.

> **MUSIKA** Aritz Maldonado
Azaroaren 19ra bitartean, jazz eta blues doinuak nagusituko dira Elorrion. Hogeita zortzigarren edizioa izango du aurtengoa Arriolako Jazz Blues Jaialdiak.

Atzo hasi zen jaialdia, Pelax eta Telmo Trenorren kontzertuagaz. Gaur, berriz, Alberto Arteta Quintet taldearen emanaldia egongo da Ateneon; boskotea erreferentziakoa bilakatu da egungo jazzaren panoraman.

Euskal Herriko eta nazioarteko artistek jazz eta blues tendentziak ekarriko dituzte Elorrion

Jaialdiko barikuetan jazz doinuak dira Ateneoko protagonista; zapatuetan, berriz, bluesaren txanda da. Horretara egokitzen dute aretoa. "Patxadaz entzun behar dira jazz doinuak. Horretarako, aulkiak jartzen ditugu barikuetan", dio Aitor Iriarte antolatzaileak. Bihar, hilak 11, Cadijo R&B Bandek eskainiko du kontzertua. Berriki, Belgikan Kristalezko Harmonika eman diote musikari frantziarrari.

Ia hiru hamarkadaren ostean, jaialdiak ohiko filosofia-

Alberto Arteta Quintet jazzaren erreferentzia, gaur Ateneon

Atzo hasi zen Arriolako Jazz eta Blues jaialdia; 28. edizioa du aurtengoa



Cadijo blues frantziarraren ordezkari ezagunenetakoa da. Bihar izango da bere emanaldia, Ateneon.

gaz jarraitzen du. Alde batetik, jazz eta blues doinuen eskaintza anitza izatea. Bestetik, Euskal Herriko zein nazioarteko joeren erakuslea izatea. Ohi bezala, kontzertuak Elorrioko hiru aretotan izango dira: Ateneon, gaztetxean eta Portalekuan. Azken bietan, domeketan izan ohi

dira emanaldiak, jaialdia "kale-atera ateratzeko", dio Iriartek.

Zortzi hitzordu

Jazz eta Blues jaialdiaren aurtengo edizioan parte hartuko duten zortzi taldeetatik sei Euskal Herrikoak dira. Herbeheretatik dator, berriz, Robert Smith

Bluesband. Smith liderrak lau hamarkada daramatza hara eta hona Chicagoko (AEB) blues eskola zaharreko doinuak zabalitzen. Azaroaren 18an izango da emanaldi hau.

Domekan, Ghost Number & His Topsy Gypsies donostiarrak arituko dira gaztetxean.

Indie doinuak nagusi Plateruenerako taula gainean

Polock eta Sei Urte elkarregaz arituko dira bihar



Martxoan kaleratu zuen Polock hirukoteak Magnetic Overload diskoa.

> MUSIKA A. M.

Polock hirukote valentziarra Plateruenerako taula gainera igoko da martxoan kaleratu zuen *Magnetic Overload* lana aurkeztera. Gainontzeko diskoetan bezala, indie doinuak nabarmen zuten dira azken honetan ere.

Hamar urte igaro dira beraien lehenbiziko EPa kaleratu zutenetik, eta, orduetik, diskoen grabaketak zuzeneko bira luzeekin partekatu dituzte. Azken disko hau kaleratu zutenetik, errepidean daude valentziarrak, eta aurten hogeitaz kontzertu inguru eman dituzte jada. Duten estilo dantzagarriari esker, hainbat festibaletan parte hartu dute hamarkada honetan.

2009an, adibidez, Franz Ferdinand eta Mando Diao taldeekin partekatu zuten eszenatokia. Taldea Papu Sebastian, Marc Linares eta Pablo Silva musikariek osatzen dute.

Urteko azken kontzertuak

Bi hamarkadako ibilbidea ospatzeko kontzertu sorta eskaini du 2017an Sei Urte taldeak. Besteak beste, Galizian egon dira berriztarrak, eta joan den astean Tolosako Bonberenean ere eskaini zuten emanaldia. Bestalde, Hogeitaz abestia grabatu dute Morgan abeslariagaz batera.

Kontzertua 22:00etan hasiko da. Sarrerak lehiatilan egongo dira salgai, 10 euroan.

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU

Irakaslea



Publizutabea

"Zure lur emankorretan / isurtzen diren asmoak / gogotsu hartuko ahal ditu lur gozoak". Asmoak, ahalginak eta eginahalak, ilusioak eta egin lanak. Kuxta itxi batean, baina herriari zabalik. Lur emankorretatik mahai gainera, mahaitik ahora, mingaitetik mundu osora. Ezer isuri gabe, dena emateko gertu.

"Orma zahar arraituetan / xoriak dira kantatzen / mendetako lo geldia salatzen". Euskarari puzka datorren nafar hegoaldeko uzta lekuko. Elkarlanak arrakalak josi ditzan herririk herri, auzorik auzo, etxerik etxe. Txoriek txio-txioka kantari jarrai dezaten mahastietan, galsoroetan, orburu-sailetan. Mendetako isiltasunak oihartzuna izan dezan goiko herrietatik behekoetaraino. Bizkaiko itsasotik Ebro ibairaino.

"Nafarroa anaia zaharra / kondairaren lehen sustarra / bego higan arbasoen *hizkuntza* hura". Eremu ez-ofiziala egunez egun, otzaraz otzara eta hitzunez hitzun ofizial eginez. Gure otorduak zainzuriz, arrosez, mahats-zukuz eta oliba-olioz koloretzatuz. Zuriaren eta beltzaren arteko mestizaje, ortzadarra ikus dezaten Tuteran, Arguedasen, Andosillan, Lodosan zein Sartagudan.

Zure hotsaren zabalera ortzi-muga den hartara ez dadin mugatu. Gora Erribera! Gora Errigora! Gora Herria!

Drag-e uraren bila
Logela Multimedia

Azaroaren 12an
18:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustin KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
OSPAKIZUN BEREZIAK

AZAROAK 10
22:00etan
POLOCK + SEIURTE
KONTZERTUA

AZAROAK 16
19:00etan
BERBERTAN ANDONI EGAÑA
BERBALDIA

AZAROAK 17
22:00etan
GATIBU
KONTZERTUA

Marimar Casaseca Martin | Futbol jokalaria ohia | Zaldibar, 1973

“Berriz taldeari irabazi genion derbia ez dugu sekula ahaztuko”

Orain 15 urte desagertu zen emakumeen taldeko jokalaria omendu zituzten joan zen asteburuan



Marimar Casaseca taldeko kapitaina izan zen lau urteetan.



Goian sasoi bateko talde omendua, eta behean aurten sortu duten haur-kategoriakoa.



Zalduako emakumeen taldearen 2002ko argazkia.

>KIROLA Joseba Derteano Zaldibarren emakumeen futbola berreskuratzeko, lehen pausoa eman dute aurten haur-kategorian taldea aterata. Aurreko taldea orain 15 urte desagertu zen, lau ur-

tez aktibo egon ostean. Joan zen asteburuan, Zalduak Zaldibarreko emakumeen futboleant aitzindari izandako jokalaria horiek omendu zituen, Solobarria futbol-zelaiant.

Omenaldiak ustekabeant harrapatu zaituzte?

Bai, ezustean harrapatu gaitu. Egun batzuk lehenago deitu, eta ea joan gintezkeen galdetu ziguten. Dena astebeteren barruan gertatu den kontua izan da.

Taldea desagertu zenetik batu zareten lehenengo aldia izan da?

Bai. Gehienak Zaldibarrekoak gara, elkar ezagutzen dugu eta elkarregaz egoten gara. Baina, talde moduan, batu barik geunden. Omenaldira herritik kanpora bizi den baten bat ere etorri da, esaterako. Beste batzuk ezin izan dira bertaratu.

15 urtez atzera egitea lakoa izan da?

Dudarik barik. Aldageletara bidetako hormetan eskegita dauden argazkiak ikusterakoan oroitzapen asko etorri zaizkigu. Zelako zelaietan jokatzen genuen, esaterako. Hareazko zelaiak ziren, patata-soroaren modukoak. Edo Elorrioren eta Berrizen kontra jokatzen genituen derbiak ere gogoratu ditugu.

Zelan batu zinen talde hartara? Aurretik futboleant arituko zinen?

Bai. Herritik kanpoko beste talde batzuetan jokatuta nengoen. Berrizen eta Iurretan aritu nintzen. Taldea sortuko zela jakitean, bertara batu nintzen. Gainerako jokalaria denak futboleant aritu bakoak ziren.

Nahiago izan zenuen herrian jokatzea nahiz eta esperientziarik bako jokalaria izango zenituen taldekide?

Bai. Herriko taldeant jokatzea ahal izatearen esperientzia hori bizi nahi nuen. Niretzat motibazioa izan zen.

Emakumeen futbola, zelakoa zen orduant? Gizonenagaz alderatuta, tratua berdina jasozten zenuten?

Herriak ondo hartu gintuen, eta jende nahikotxo etortzen zen gure partidua ikustera. Beharbada, herritarrentzat ere nobedadea izango zelako. Gero, entrenatzeko ordutegiak banatzerakoan, esaterako, gizonak arratsaldetan entrenatzen ziren, eta gu, ahal genuenean: goizetan, libre zeuden orduetan... Orduant horrela zen.

Zelan gogoratzen dituzu futbol taldea aktibo egon zen lau urte horiek?

Beti animatuta eta motibatuta ibiltzen ginen. Niretzat urte politak izan ziren. Oso gustura aritu nintzen. Berriztik Zaldibarrera bizitzen etorritakoa nintzen, eta ez nuen jende askorik ezagutzen. Taldearen bidez jende dezente ezagutu nuen eta oraindik gertuko harremana dut batzuekin. Orduko hamaita oroitzen ditut. Gogoant dut, esaterako, belarrezko zelai batean lehenengoz jokatzea genuenekoa, Bilbotik gertu. Imaginatu, hareazko zelaietara ohituta, belarrezko probatzea itzela izan zen. Elorrioko jokalaria baten lesioa ere gogoratzen dut. Al-boko sake batean atzerantz korrika zihoan, eta belauna irten zitzaion. Irudi hori ez zait sekula ahaztuko.

Badago memoriant bereziki il-tzatuta geratu zaizun futbol partiduren bat?

Berriz irabazi genion derbia ez dugu sekula ahaztuko. Talde biant artean zegoen lehiagatik berezia izan zen. Jokalaria denei galdera hori egiten badiezu, berdina erantzungo dizute. Gainera, azkenengo urteant izan zen. Ordura arte beti irabazi ziguten, eta laugarren urteant, gure azkenengoan, geu izan ginen irabazle. Partidua ostant ospatu egin genuen.

Zergatik desagertu zen emakumeen taldea?

Asko ni baino gazteagoak ziren eta kanpora joan ziren, ikasketegatik. Besteren bat lanean hasi zen. Saiatu arren ezin izan zen jokalaria berririk batu eta taldea utzi behar izan genuen.

Futboleant jarraitu zenuen?

Ez, utzi egin nuen. Lanean hastera nindoan eta ez neukan beste talde batera joateko gogorik. Taldekide bat Berrizera joan zen, eta gero Realera. Beste bat Eibarren aritu zen ostant.

Zuen oinordekoa hartu dezakeen taldea sortu dute aurten.

Nesken taldea sortu izanak poza ematen dit, poz handia. Hau hasiera da eta ea aurrera doan.

Neskek entrenatzea gustatuko litzaidake?

Zerbaiten parte izatea gustatuko litzaidake. Ez dakit entrenatzaile izateraino, baina parte izatea polita litzaketu. Babesa behar badute, edo nonbaitera joan eta zelan joan ez badute, laguntzeko prest nago. Omenaldira batu ginen gehienok hori egiteko prest egongo gine-la uste dut.

Elorrioko ziklo-kros lasterketak nazioarteko txirrindularirik onenak batuko ditu, domekan

Antolatzaileek emakumezkoen partaidetza eta hauen lasterketak indartzeko apustua egin dute



Jon Munitxa abadiñarra Elorrioko lasterketan izango da.

> ZIKLO-KROSA M.Zuazubiskar Bizkaiko ziklo-kros probarik beteranoena UCiKo mailarik altueneko lasterketa izango da aurtun. Domekan 09:00etatik 14:00etara bitartean jokatuko diren lasterketan, estatuko eta nazioarteko txirrindularirik onenak batuko dira. “Emakumezkoen txirrindularitza bultzatzeko apustua egiten ari gara, eta hori aurtengo lasterketan ikusiko da”, adierazi du Joseba Gorostiza Elorrioko Txirrindulari elkarteak. San Joseko landetan lehiatuko den lasterketan, Helen Wyman eta Ceylin Del Carmen Alvarado holandarrek, Natalie Redmond australiarra eta Aida Nuño eta Lucia Gonzalez galiziarrek izango dira, besteak beste. Elorrioko lasterketan lehenengo aldiz izango den Redmond hitzetan, “lasterketa borrokatua izango da eta lehia polita ziurtatuta egongo da”.

Gizonezkoen lasterketan ere txirrindulari garrantzitsuak izango dira irteera leerroan: Felipe Orts, Ismael Esteban, Aitor Hernandez, Javier Ruiz de Larrinaga, Kevin Suarez, Andrew Juiliano eta Jon Munitxa abadiñarra, besteak beste.

Ibilbideari dagokionez, zirkuituak 2.950 metro izango ditu guztira, eta 45 metroko haizea. Horrez gain, nobedadez, %38ko erripa izango duen piramide formako pasabide bat ere egongo dela jakitera eman dute antolatzaileek.

Bestalde, Idoia Buruaga alkateak eta Dani Palacios zinegotziak adierazi dute ohorea dela Elorrioko nazioarteko lasterketa bat egitea, eta herritarrei ikustera joateko deia egin diete. Elorriora joan ezin daitezkeenek, berriz, lasterketa streaming bidez jarraitzeko aukera izango dute, www.rfec.com webgunean.

ADITUAREN TXOKOA

ALFONSO ARROIO MONASTERIO

ETBko kirol kazetaria



Euritan dantzan

Hori dio Gatibu taldearen abesti famatuak. Hego haizea joan zaigu eta horixe ekarri digu udagoienak: euria, hotza eta, ondorioz, baita basa ere. Gehienek ez dute gogoko, baina kirolari gutxi batzuek pozarren hartu dute. Ez dira famatuak, askok ez dute saririk jasotzen, hainbeste maite dute bere kirola ezen ordubete inguru lupetzetan pasatzeko prest daudela. Sufirimendua, nekea eta hotza bidaide dute, baina hori guztia gozamen bilakatzen dute.

Lokatz artean artisten gisa mugitzen dira, artea baita beraien jarduna. Kirol bizia izaki, txokolate artean artez mantentzea nekeza da. Urteen poderioz hedabideen arreta galdu du, ez ordea zaleena. Salda beroa, ogitar-tekoa eta edari egokia lagun, goiz pasa polita igarotzeko beta ematen duen ikuskizuna da eta. Nola Belgikan, hala Herbehereetan kirola bainoago erlijioa da. Hogeita hamar mila zale elkartzeko gai den modalitate hau nagusi bihurtzen da udazken-negu partean. Sarrera ordaindu ondoren, saltxitxa eta garagardo artean beraien idoloak ikusteko irrikan egoten dira. Tradizioa dute baita produktua ikuskizun moduan saltzeko gaitasuna ere. Telebistak lasterketak zuzenean ematen ditu eta kirolariak izarrek dira.

Hortik urrun gaude zoritxarrez. Zalantzarik ez daukat neguko kirol nagusia izateko osagai guztiak dituela. Telebistaz emateko iraupen egokia dauka eta ikusgarritasuna du alde. Hau guztia baita ziklo-krosa, behar bezala aintzat hartzen ez den kirola.

Mimenzak garaipen bi lortu ditu asteburuan

Antxintxika eta Debako lasterketa irabazi ditu

> KORRIKA M.Zuazubiskar Aitor Mimenza elorriarra sasoi betean dagoela erakusten ari da azken lasterketan.

Zapatuan, Soraluze eta Bergara lotzen dituen Antxintxika lasterketan garaipena eskuratu zuen Beñat Arnaiz arrasateararen eta Dabid Garcia durangararen aurretik. Mimenzak lasterketako 10 kilometroak 31:49 minutuan egin zituen.

Bestalde, azken zazpi urteetako irabazleak, Dabid Garcia Durangaldea Runningeko ko-

rrikalariak, aurtengo edizioan hirugarren postuagaz konformatu behar izan zuen. Irabazlearengandik 1:05 minutura helmugaratu zen Garcia.

Domekan, berriz, asteburuko bigarren garaipena eskuratu zuen elorriarrak. Mimenzak Maite Etxezarreta Azpeitiko korrikalaria bikote zuela, Debako lasterketa mistoa irabazi zuen.

Mimenzak eta Etxezarretak Azpeitiko kros mistoan ere, urriko azken asteburuan, bigarren postua eskuratu zuten.

Final-laurdenak jokoan Olazar txapelketan

Zaldibarren 21:30ean hasiko dira partiduak

> ESKU PILOTA M.Zuazubiskar Zaldibarko Olazar pilota txapelketa azken txanpan sartu da. Hainbat kanporaketaren ostean, final-laurdenak hasi zizuten atzo. Lau t'erdian Lerena eta Garcia izan ziren final-laurdenak jokatzeko lehenengoak, eta binaka, berriz, Zabalak eta Etxebarriak Exposito eta Sanchez izan zituzten aurkari.

Hurrengo partiduak azaroaren 16an izango dira, datorren egunean. 21:30ean hasiko den lau t'erdiko txapelketan, Zubi-

ria eta Iriarte arituko dira elkarren kontra. Ostean, binakako partidua egongo da. Bigarren

Azaroaren 16an, datorren egunean, jokatuko dituzte final-laurdenetako azken partiduak

partiduan, Labakak eta Arratibelek Pradoren eta Perezen kontra jokatu dute.

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

A. Urreta podólogo

R.P.S. 214/05

Edinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxe: 946 215 404



EROSKI Abadiño hipermerkatu berria

Azoka kutsuko hipermerkatua

zurekin

LARUNBATA

11

AZAROA



Bazkideentzat
bakarrik

Zure erosketa
guztiaren

%25

DOAN*

Deskontu-baleetan itzuliko dizugu

* Baleen gehieneko zenbatekoa: 150€
(baleak emateko erosketaren gehieneko zenbatekoa: 600€).
* Kontsultatu baldintzak zure dendan.

Etor zaitez!

Nerea Vicente
Harategiko saltzailea
Lan-bazkidea

EROSKI
zurekin



Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:



3D PRINT

-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
-%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

BETIXU JATETXEA

- %10 asteburuko otorduetan eta kartan, barikua eta zapatu gauetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

-%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

-%15 sarreran.

ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

-%5 lehenengo erosketan.
-%10 erosten den bigarren arropan.

IURRETA KOPISTEGIA

-% 10 eskola eta bulego materialean.
-%5 musika, opari eta liburuetan.

KATXARRO JATETXEA

- %10 asteburuetako menuetan.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

-%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

-% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
-%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
- %10 Gabonetako produktuetan: turroiak, polboroiak...

OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Bosgarren gosaria doan.
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

UNDARRI BIKE

-%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
-%10 bizikletako osagarrietan.

URKI Prentsa eta paper denda

-%10 amantaletan.
- %10 jolasetan.

URRIKE LIBURU-DENDA

-%5 liburuetan.
-%10 papergintzan.

UR URDAIBAI

-%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



KIROL ERROTA gimnasioa

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.



UNDARRI BIKE

-%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
-%10 bizikletako osagarrietan.



OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan.
(Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin)



Anbotoren Lagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

PERTSONAK ZAINDU

Berriz. Arratsaldetan (16:00-20:00) ume bi zaindu eta etxeko lanak egiteko persona baten bila nabil Berrizen. Nahiago 40 urte baino gehiago izatea. Beharrezkoa kotxea izatea. Tel.: 660-97 32 54

IRAKASKUNTZA

Durungaldea. Ingelesko irakaslea behar da, astean bi egunetan klase partikularrak emateko batxilergo 2. mailako ikasleari. Antonio: 626-11 74 38

GAINERAKOAK

Durungaldea. Sukalde diseinatzaile-saltzailea behar da. Gutxienez 2-3 urteko esperientzia baloratuko da. Tel.: 605-74 01 76.

Denetarik

SALDU / EROSI

Bizikleta eta patinak salgai. 7-11 urte bitarteko neska zein mutilentzako bizikleta saltzen dut. Baita luzatzeko patinak ere, 9 eta 12 urte bitartekoentzat. Bizikleta 80 eurotan salgai daukat eta patinak 30 eurotan. Tel.: 699-45 43 69

Familia - etxea

ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIAK

SALDU

Egurrezko bi ohe salgai. 180 eurotan egurrezko bi ohe 90koak, biak berdinak, saltzen ditut. Tel.: 625-48 38 39 musikuxua@gmail.com

Egurrezko sehaska salgai. Oso polita, koltxoia barne, 150 eurotan. Tel.: 625-48 38 39 musikuxua@gmail.com

Umea eramateko kotxea, txasisa eta kapazua salgai. Jane Nomad markakoa, egoera onean, 100 eurotan saltzen dut. Tel.: 625-48 38 39 musikuxua@gmail.com

2 Ume eramateko aukila. Oso egoera onean dago. Amortiguazioa eta disko-balazta ditu. Aulkiarekin batera ematen dugu: kapazu bat (estrenatu barik), 2 zaku umeak aulkian eramateko eta aukila maclaren bat (bikotza). Tel.: 635 754 962 - zamallogoagz@gmail.com.

MALLABIA

Baserria salgai
Mallabiko
Arandoño auzoan

20.000 m2-ko
lursaila.
Bi etxebizitza
egiteko aukera.

Prezio onean salgai:
120.000€.

Tel.: 634-78 21 39

SALDU

Aramalo. Baserri etxea. Aukera asko. 360 m2-ko azalera. 140m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lur eremua. Eguzkitsua, Urkiolako parke naturalaren ikuspegi zoragarriak. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669 064 788.

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! la amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Logela bat alokagai Muntzarazko baserri berriztu batean. Tel.: 628-88 82 63 (Unai).

GARAJE / TRASTEROAK

ERRENTAN HARTU

Durango. Lonja edo trasteleku bat alokatuko nuke, bakarrik edo konpartituta, bizikletak-eta gordetzeko, Askatasun Etorbideko 12. zenbakitik gertu. Tel.: 660-20 18 30.

GAINERAKOAK

SALDU

Berriz. Berrizko Sarrimendi elkarte kultureko partaidetza salgai, 4.400 eurotan. Tel.: 635-73 23 65.

Durango. Durangon taberna salgai. Etxebizitza egiteko aukerarekin. Interesatuak deitu. Tel.: 607-47 25 17.

Teknologia

GAINERAKOAK

SALDU

Gasolinazko generadorea. Gasolinazko generadorea salgai. Potentzia altua dauka. Tel.: 646-22 96 54.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEO LANAK

Durango. Esperientzia handiko emakumeak plantxa zein etxeko lanak orduka egiteko eskaintzen du bere burua. Tel.: 645 70 68 39.

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Tel.: 631-00 10 83.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Orduka edo lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.: 689-74 23 57.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile moduan. Orduka edo lanaldi osoan lan egiteko prest. Baita gauze ere. Tel.: 602-80 83 85.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko edo ordukako langile moduan. Esperientzia daukat. Tel.: 632-94 56 81.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lanaldi osoan, erdian edo orduka. Atarietan, bulegoetan, tabernetan garbitzaile lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Tel.: 631-28 71 29.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 631-43 68 37.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Eskarmentua eta esperientzia ditut. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetak langile moduan aritzeko prest. Tel.: 632- 72 50 54.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Eskarmentua eta esperientzia ditut. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetak langile moduan aritzeko prest. Tel.: 631-20 36 07.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Baita kanpoko zein barneko langile moduan ere. Tel.: 631-26 24 82.

Durungaldea. Lan bila nabil garbiketan zein pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita ostalaritzako lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, italiaraz hitz egiten dakiena. Tel.: 632-63 24 16.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Gauze zein asteburuetan lan egiteko prest. Erreferentziak ditut, baita eskarmentua ere. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 660-18 46 03.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan, zerbitzari lanetan, baserriko lanak egiten edo igeltsu laguntzaile moduan. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Erreferentziak eta eskarmentua ditut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 602-41 46 70.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, astelehenetik barikura, goizez. Tel.: 686-90 81 24.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona

nagusiak zaintzen. Kanpoko, barneko zein ordukako langile moduan. Tel.: 610-06 70 42.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Tel.: 622-85 73 99.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein garbiketa lanetan. Lanaldi osoan, lanaldi erdian edo orduka lan egiteko prest nago. Baita garbiketa lanetan ibiltzeko ere. Tel.: 631-20 85 18.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein garbiketa lanetan. Kanpoko zein barneko langilea. Tel.: 654- 48 88 59.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein garbiketa lanetan. Kanpoko zein barneko langilea. Tel.: 654- 48 88 59.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Barneko, kanpoko, ordukako zein asteburuetak langile moduan. Tel.: 631-70 05 73.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Barneko, kanpoko, ordukako zein asteburuetak langile moduan. Tel.: 610-90 35 48.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko langile moduan, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-83 98 07.

Durungaldea. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen ditut. Ordukako, barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-54 40 61.

Durungaldea. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Ordukako, barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-11 18 62.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Tel.: 642-98 60 19.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, nagusiak zein umeak zaintzen. Orduka, eta gauze ere lan egiteko prest. Esperientziagaz. Tel.: 612-24 53 26.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein garbiketa lanak ere egiten ditut. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-98 53 87.

Durungaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketa lanak egiteko prest. 9:00etatik 16:00etara lan egiteko prest. Tel.: 689-74 23 57.

Durungaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere aritzen naiz. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 631-69 80 95.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko zein ordukako langilea. Tel.: 722-56 22 41.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein garbiketa lanetan. Lanaldi osoan edo erdian aritzeko prest. Baita barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan ere. Tel.: 631-20 85 18.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein garbiketa lanetan. Erreferentziak eta esperientzia ditut. Lanaldi osoan edo erdian aritzeko prest. Baita barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan ere. Tel.: 631-27 81 29.

Durungaldea. Gizon euskalduna ospitalean eta etxean gaixok eta adin nagusikoak zaintzeko prest. Tel.: 669-63 03 12.

Durungaldea. Lan bila nabil umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo ordukako langilea. Tel.: 632-06 11 03.

IRAKASKUNTZA

Durungaldea. Ama-hizkuntza alemana, filologia alemanean lizentziatua eta ikasketak Ingalaterran egin ditut. Klaseak adin edo maila guztietara egokitzen ditut, baita pertsona bakoitzaren beharretara ere. Elkarrizketa klaseak ere eskaintzen ditut. Esperientzia eta seriotasuna. Tel.: 645-21 02 29.

Durungaldea. Irakasle euskalduna klase partikularrak emateko eta umeak zaintzeko prest. EGA eta ingeles tituluak ditut. Hainbat urteko esperientzia. Tel.: 692-71 66 19.

Durungaldea. Irakaslea lan bila dabil klase partikularrak emateko (ikaslearen etxean). Tel.: 692-77 66 19.

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Zaldibar. Zaldibarko taberna baterako zerbitzari bila gabiltza. Eskatzen da: / Pertsona euskalduna / Aktiboa, lanerako gogoz eta iniziatibaduna. Baloratuko da: Zerbitzari lanetan esperientzia izatea / Durangaldekoa izatea. Eskaintzen da: Azaroaren 24aren bueltan hasi eta hilabeterako zerbitzari lanak egingo dituen / Agian jarraitzeko aukera / 30 orduko lanaldia astean: astelehenetik barikura (hilean zapatu edo domekaren bat egin beharko du lan). Soldata: 1.700 euro gordin. Interesatuak idatzi edo deitu 647-26 88 63 telefonora.



LAN ESKAINTZA

Anboto astekariak **diseinatzailea** behar du.

ESKATZEN DA:

- Diseinu arloan formakuntza izatea.
- Esperientzia izatea.
- InDesign, Photoshop eta Illustrator ezagutzea.
- Maketatzen jakitea.
- Euskara maila altua.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.

BALORATUKO DA:

- Diseinu arloan egunkariaren batean esperientzia izatea.
- Durangaldekoa izatea.

ESKAINTZEN DA:

Lanaldi osoko lanpostua
Curriculum eta porfolioak
astekaria@anboto.org
helbidera bidali azaroaren 17a baino lehen.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



AZAROAREN 10ean, 20:00etan, ZORNOTZA aretoan

Jon Braun

Anita Maravillasen obra estreinatuko da gaur. Jon Braun ilusioz aurrera egiten duen indio txiki bat da, eta zoritxarraren aurrean maitasunak ematen duen ausardiaz mintzatuko da. Miren Larrea zornotzarra eta Valentina Raposo txiletarra dira antzezleak.

Musika

:: DURANGO

AZAROAREN 10ean

22:00etan, Polock eta Sei Urte taldeen kontzertua, Plateruenean.

AZAROAREN 12an

19:00etan, 'Ecos de Oiz obra' Nerea Aizpuruaren kontzertu-hitzaldia.

:: ELORRIO

AZAROAREN 10ean

22:30ean, Alberto Arteta Quintet, Ateneon.

AZAROAREN 11n

22:30ean, Cadijo R&B Band, Ateneon.

AZAROAREN 12an

20:00etan, Ghost Number & His Topsy Gypsies, Gaztetxean.

AZAROAREN 16an

21:30ean, Last Fair Deal, Ateneon.

AZAROAREN 17an

22:30ean, Iñaki Salvador Trio, Ateneon.

AZAROAREN 18an

20:00etan, Juan Carlos Irizarren kontzertua. Santa Ana elizan.

22:30ean, Robert Smith Blues Band, Gaztetxean.

:: BERRIZ

AZAROAREN 11n

22:00etan, Astralia taldearen kontzertua, Kultur Etxean.

AZAROAREN 18an

20:00etan, Aitor Etxeberriaren kontzertua, Kultur Etxean.

Erakusketa

:: BERRIZ

AZAROAREN 12ra arte

Sergio Morenoren marrazkiak, Kultur Etxean.

:: DURANGO

AZAROAREN 18ra arte

Jon Gorosperen 'N. Mountains', Kurutzasantu Museoan. Begira jaialdia.

:: ELORRIO

AZAROAREN 17ra arte

Aire libreko margolan lehiaketako lanak erakusgai, Iturri



Antzerkia

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 11n

18:00etan, 'Jon Braun' Anita Maravillas taldearen antzezlan, Zornotza aretoan.

:: BERRIZ

AZAROAREN 17an

18:00etan, 'Loo' antzezlan, Kultur Etxean.

:: DURANGO

AZAROAREN 19an

19:00etan, David Guaporen bakarrizketa saioa, Plateruenean.



Bertsolaritza

:: DURANGO

AZAROAREN 12an

17:00etan, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoa, Landako Gunean. Ez dago sarrerarik.



Jardunaldiak

:: DURANGO

AZAROAREN 15ean

19:00etan, La mujer en las organizaciones mapuche hitzaldia, Andragunean.

AZAROAREN 16an

19:00etan, Berbertan zikloa Plateruenean: Andoni Egaña

Dantza

:: BERRIZ

AZAROAREN 11n

20:00etan, 'Oskara plazara'. Kukai dantza taldearen dantza ikuskizuna.

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 17an

21:00etan, Maurizia dantza ikuskizuna, Zornotza aretoan.



Poesia

:: DURANGO

AZAROAREN 17an

19:00etan, poesia emanaldi musikatua, Andragunean.



Deialdia

:: DURANGALDEA

AZAROAREN 14ra arte

Errigoraren kanpaina berrian izena emateko epea. www.errigora.eus



Jaiak

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 10ean

22:00etan, Tokan2lapolla taldearen kontzertua

AZAROAREN 11n

22:00etan, Su Ta Gar eta ZEN taldeen kontzertua, Zelaieta parkean.

AZAROAREN 12an

12:00etan, Antxon Magoaren ikuskizuna, Harrison parkean



ZINEMA

:: BERRIZ KULTUR ETXEA

Tadeo Jones 2

. barikua 10: 18:00
. domeka 12: 17:00

:: DURANGO ZUGAZA

Oro

. barikua 10: 19:30-22:00
. zapatua 11: 17:00-19:30-22:30
. domeka 12: 16:30-18:45-21:00
. astelehena 13: 18:30-21:00
. martitena 14: 20:00
. eguaztena 15: 20:00

La mejor receta

. barikua 10: 19:30-22:00
. zapatua 11: 19:30-22:30
. domeka 12: 18:45-21:00
. astelehena 13: 18:30-21:00
. martitena 14: 20:00
. eguaztena 15: 20:00
(Ingelese, azpidatziekin)

Musa

. barikua 10: 19:30-22:00
. zapatua 11: 19:30-22:30
. domeka 12: 18:45-21:00
. astelehena 13: 18:30-21:00
. martitena 14: 20:00
. eguaztena 15: 20:00

Pokemon te elijo a tí

. Zapatua 11: 17:00
. Domeka 12: 16:30

Deep

. Zapatua 11: 17:00
. Domeka 12: 16:30

:: ELORRIO ARRIOLA

En cuerpo y alma

. domeka 12: 20:00
. astelehena 13: 20:00

:: ZORNOTZA ARETOA

La mejor receta

. zapatua 11: 22:00
. domeka 12: 20:00
. astelehena 13: 20:15

Pokemon, te elijo a tí

. domeka 12: 17:00

Rara

. martitena 14: 20:15

AZAROKO AGENDA



10 MUSIKALDIA 2017 IBARRETXE KULTUR ETXEA
19:00 Zura laukotea (Ganbera-musika). Sarrera gonbidapenarekin.

13 IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
Paperezko hegoak: Haurrentzako irakurketa kluba
17:00 LH-ko 3.maila.
18:00 LH-ko 4.maila.

14 IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
17:00 Euskarazko irakurketa kluba "Asylum / Javier de Isussi".
18:30 Club de lectura de castellano "Una hija es una hija / Mary Wstmacott".

14 23 Lanak jasoko dira (Marrazkiak, esaldiak, bertsoak, esloganak, binetak, argazkiak eta komiki laburrak).
Gaia: BERDINTASUNA, INDARKERIA ETA SEXISMOA

15 IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
10:00-11:00 Nagusientzako XL irakurketa kluba.
Siete días en el lago (Irakurketa erraza)
ANDEREBIDE IBARRETXE KULTUR ETXEA
19:00 "Herri maite" Akordeoi taldea. Sarrera gonbidapenarekin.

> BOTIKAK**BARIKUA, 10**
09:00-09:00**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarate poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 11**
09:00-09:00**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-13:30

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango**De Diego**
Intxaurren 22. - Durango**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza**Jaio-Olabarrieta**
Errekakale 6 - Elorrio**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño

09:00-14:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarate poligonoa, 4 P8, Abadiño**DOMEKA, 12**
09:00-09:00**De Diego**
Intxaurren 22. - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 13**
09:00-09:00**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarate poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 14**
09:00-09:00**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarate poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**EGUAZTENA, 15**
09:00-09:00**Etxebarria**
Montevideo etorb. 2 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarate poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**EGUENA, 16**
09:00-09:00**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarate poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 · DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

**> Zorionak, Magali!** 5 urte etxeke poxpoliñak. Ze txokolate goxoa jan gendun atzo ospatzeko!**> Izei eta Leire** izeko-lobak, martitzenean eta eguztzenean urte bat gehituko dabe urteen katiurratzean. Urte askotako! Helene, Urko eta Bidarten partez.**> Zorionak, Jurgi!** Bi urte bete zenituen azaroaren 3an. Musu handi bat Iara, aitatxo eta amatxoren partez.**> Atzo gure Jonek** 10 urte borobil bete zituen. Zorionak, laztana, etxekeoren partez. Aupa gure neskato koskorra!**> EGURALDIA**

ZAPATUA	15° / 11°	
DOMEKA	14° / 7°	
ASTELEHENA	11° / 4°	
MARTITZENA	13° / 2°	
EGUAZTENA	15° / 4°	
EGUENA	16° / 7°	



Anbotoren lagunak

ERRIGORAK emandako
2 saski zozkatuko ditugu
Anbotoren Lagunen artean.
Zorte on!

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak
Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org



ERRIGORA

AZKENENGO ZOKKETAREN IRABAZLEA
AINARA URRETA
emandako *quiropodia*
saio bat

ANE ORMAETXEA
TORREGROSA

ZORIONAK!

“Sei kuadrilla inguru etortzen dira, eta aurten 400 kilo intxaurre batu dituzte”

Gura adina intxaurre batzeko aukera ematen dute Mallabian; sanfausto bueltan batu ohi dituzte

> AKUILUA Aitziber Basauri
Sikatzen behar den denbora utzi ostean, jateko moduan daude intxaurrek. Hego haizeak lagunduta, ohikoa baino lehenago aurten. Azken hiruzpalau urteetan, gura adina intxaurre batzeko aukera dute intxaurre zaleek Mallabian. Intxaurrek jausten hasteagaz batera joan daiteke, eta pisura ordaindu.

Intxaurrek norberak batu eta etxera eramateko aukera ematen duzue. Nolatan?
Ahizpak ikusi zuen Frantzia masusta-zelai handietan otzarekin sartzen zela jendea, gura adina masusta hartzeko. Irteeran, neska-mutil batzuk zeuden postutxo batean, balantza batez, masustak pisura kobratzeko. Masustatan joandako jendea inguru ezagutzearren joaten zen. Ahizpak intxaurrekin berdin egitea proposatu zidan.

Hiruzpalau urte dira horrela egiten duzuela.

Bai. Aurreneko urtean, lagunak etorri ziren eta operatu egin genizkien intxaurrek.

Orduan ikusi genuen oso zaila zela inork

bost kilo intxaurre erostea, baina, hara joan eta batzen hasita 40 kilo batzen zituztela. Poltsakadak. Hartara, intxaurrek ez ziren lurrean usteltzen. Beraz, intxaurrei prezio bat jarzea eta aurretik iragartzea erabaki genuen. ANBOTOn ere jarri genuen iragarkia. Baina, urte hartan geuk batu genituen. Orduan izan genuen lehen hartu-emanen bezero izango zirenekin, Durangoko Plazan. Alabak, lagun batez, 70 bat kilo batu zituen, eta dirutxo bat lortu zuten ikasketa bidaiarako. Trebeagoak ziren saltzen!

Plazan ez zenuten saltzen?

Pare bat egunean joan nintzen. Ikusi nuen oso zaila zela saltzea, eta ezagunei esan nien intxaurrek jasotzera etorri zitezkeela, merkeago egingo niela. Haiek izan ziren hurrengo urteko lehen bezeroak.

Ordudanik gehiago animatu dira?

Bai, eta jende berria etorri da. Iaz ez nituen hainbeste dei izan, baina etorri zirenek asko batu zituzten: adibidez, bikote batek 40 kilo. Aurten ere berdin egin dugu. Baina, iragarri eta hiru astera denak batuta zeuden, eta itzarote-zerrendan geratu dira lagun bi, datorren urterako. Sei kuadrilla inguru etortzen dira, eta aurten 400 kilo intxaurre batu dituzte.

Intxaurrek aurreratu egin dira?

Bai, normalean sanfausto bueltan batzen ditugu eta aurten bizpahiru bat aste lehenago jausi dira. Hurrengoan ere buelta-

tzea gura dugu. Horregatik, euripean ibiltzeko, edo intxaurre gutxi daudenean, gurago dut ez etortzea; ez dakienak txarrak ere hartzen ditu, eta horretaz ohartarazten saiatzen naiz. Ono batu eta ondo sikatu ditzaten gura dut, intxaurre ona izatea.

Zenbat intxaurre batu dituzte?

Hektarea bat lursail goldatu eta intxaurreak sartu zituen aitak duela 28 urte. Baserrian jaiotakoa da, bizitzera kalera joandakoa. Baina beti gustatu zaio baserrira eta, jubilatzean, lurra eta baserrira hartu zituen. Haren kapritxoak zaletasuna izan da. Ardiekin eta zaldiekin ere saiatu zen, eta hasieran bakarrik konpontzen zen. Gero, nire ahizpak lagundu izan dio intxaurrek jaso eta saltzen, lagunei, lankideei. Ni ere ibili nintzen, baina horrela jarraitzerik ez zegoela ikusi genuen.

Intxaurrezalea zara?

Zale amorratua ez naiz, baina jaten ditut. Entsaladan gustatzen zaizkit asko, oso erraz jaten dira. Gabonetako intxaurre-saltsa ere luxua da. Inoiz egiten dut.


Osasuntsuak ere badira.

Egunero 6-8 intxaurre jatea gomendatzen dute. Gantz azido saturatuak eta kaltzioa dituzte eta tiroiderako ere aholkatzen dituzte. Irakurri dudanez, hostoekin edo kanpoko azal berdeagaz egindako likore eta infusioak ere oso onak dira digestio-ara-zoetarako, eta bizioak kanporatzeko ere erabili ohi da. Leihoan intxaurrekoaren adartxo bat uretan jarrita, ez da eulirik sartzen. Hala irakurri dut.

LAUHORTZA

PAUL BUSTINDUI REVUELTA

Kazetaria



Birus zakarrak

Konstituzioko artikulua pil-pilean daude azkenaldian, batzuk betetzen ez diren arren. Ez naiz ari 155. artikuluz, 35.az baizik. Honen arabera hiritar guztiak lan egitera behartuak daude, eta lan aukera, profesio eta bizibide aukeramen libre baterako eskubidea ere badaukate. Gazteok gehien kezkatzen gaituen gaien artean kokatu behar dugu enplegua, nahiz eta azken urteetan arlo politikoa beste guztiari gailendu zaion gaia bihurtu den arren. Azken Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera, aurtengo bigarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia tasa %15,6koa da. 16 urtetik gorako pertsonak hartuta %11koa da datua, gazteengan gehiago eraginez.

Unibertsitateko gradua bukatu ondoren, bide ezberdinak hartzen dira. Gehiengoak master ikasketekin jarraitzen duen arren batzuek lan mundura egin dute salto. Dena dela, fakultateko gelakideekin biltzen naizenean kazetaritza arloan bizi izan ditugun lan esperientziak partekatzen ditugu. Gazteenganako presioak, soldata oso baxuak —lankideenekin alderatuta arruntak dira—, baina badira ere kazetaritzarekiko ilusioa eten dieten horiek. Birus zakarrak dira, eta hauen sintomen artean mespretxuak, beste lagun bat postu berean ekiteko egiten diren kalertzeak eta pertsonak merkatal objektu gisa erabiltzea daude. Zorionez, ofizio konplexu honekin jarraitzeko animatzen duten lantaldeak ere badaude, lerro hauek idaztea ahalbidetzen didana esaterako. Sekula ahaztuko ez dudana lehen erre-dakzio hura.



Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etzebarrieta auzoa - 48215 IURRETA
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194